

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / 546. zenbakia

UDAN... KIROLA!

Uda Kanpainan ia 600 lagunek hartuko dute parte

SANTA MARINA: UZTAILAREN 18AN IREKIKO DUTE/5 • UDAKO GAUAK: UZTAILEAN, JAZZ EMANALDIK/12

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: JABIER PEDRO FERNÁNDEZ FERRERAS



ANTIA
HARATEGIA
Matxiategi 8
BERGARA



BOLU
FRUTATEGIA
Aranerreka 3
BERGARA



GERMAN LETE
ARRAINDEGIA
Oxirondo azoka
BERGARA



IMAZ
HARATEGIA
Aranerreka 1
BERGARA



LETURIA
JON MIRENA
HARATEGIA
San Pedro 24
BERGARA



MERTXE
OILASKOAK
Oxirondo azoka
BERGARA

OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU



MUJIKA
HARATEGIA
Kalebarren 1
ANTZUOLA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



PRIMI
ARRAINDEGIA
A. Fleming 5
BERGARA



SAN PEDRO
FRUTATEGIA
San Pedro z/g
BERGARA



URCELAY
HARATEGIA
Ibargarai 16
BERGARA



ZARAITZU
ARTISAU
Fraiskozuri 3
BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ Pozik oporretan? Ze egingo dozu?



ELENE SASIETA
7 urte



JON ARANTZABAL
9 urte



MAITANE ARTEAGA
9 urte



JON MARZO
7 urte



ANDER SECO
7 urte



MIREIA LARRAÑAGA
10 urte

Bai, oso pozik nago. Lagunekin jolas egiten dot eta patineta ibiltzen be naiz. Harora juten gara, egun askotarako. Haron lagun bat daukat, eta igerilekura be juten naiz.

Oporretan lagunekin jolas egiten dot. Futbolian, bizikletan, eta beste gauza batzutan. Eta tiokin eta Frantziara jungo naiz Tourra ikustera. Euskaltel-eko batek irabaztia nahi dot.

Oporretan oso pozik egoten da, ikastolan baiño hobeto. Lagunekin jolas egiteko, igerilekuan baiñatzeko eta holakotarako denporia emoten dau. Gurasuekin Cambrilsera jungo naiz.

Nik nahixago dot oporretan egon ikastolara jun baiño. Oporretan futbolian egiten dot eta bizikletan be ibiltzen naiz. Gurasuekin Bertizera jungo naiz. Iaz be egon giñan.

Nik nahixago dot oporretan egon eskolara jun baiño. Jolas egiten dot lagunekin, igerilekura juten naiz eta bizikletan be ibiltzen naiz. Eta gurasuekin Almeriara jungo naiz.

Eskolan baiño hobeto egoten da oporretan. Jolas egiten dot, eta igerilekuan baiñatu. Gurasuekin Cadizera jungo naiz agostuan, hogei egun. Juan zan urtitan be han egon giñan.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK SEINALEAK ALDATZEKO GARAIA Elgetako irakurle batek ohartarazi gaitu. Hark egunero ikusten du irudiko seinalea, eta begietan ematen diola esan digu. Kamioiak ohartarazteko seinalea da. Euskaraz eta gaztelaniaz du testua. Euskarazkoa ondo. Baina gaztelaniazkoan *Elgeta* beharrean *Elgueta* dio. Irakurlearen arabera, seinalea aldatu eta ondo jartzea ez da inongo lana. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

San Martzialgo letania

Astelehenean, San Martzial eguna, letania egongo da. 07:30ean abiatuko da Santa Marina-tik gora.

Ipintzako finalak

Ipintzako txapelketako lehen finala jokatu da gaur. Arlotek eta Xukak nesken taldeen artean.

Udal Musika Banda

Bergarako Udal Musika Bandak emanaldia egingo du etzi, domeka, Espoioan, 12:30ean.

ASTEKODATUA

40

GRADURA IRITSI ZEN TERMOMETROA

Aspaldiko udaberririk beroenetakoa izan dugu, eta uda ere horrelakoa datorrela dirudi. Luis Mari Agirreren datuen arabera, 40 gradu markatu zituen termometroak egubakoitzean.

BESTEKEESANA

“ Jaitsiera demografikoak ez du eraginik izan, Uned-eko matrikulazio kopuruan; izan ere, gure ikasleen perfila oso berezia da. euren helburua da formazioan sakontzea nahiz eta jarduera profesionala osatuta izan. JUANJO ALVAREZ / Bergarako Uned-eko zuzendaria Gara/03-06-25

“ Bergarako herritar moduan eta alkate moduan oso pozik nago eta ezkertzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiari izan duen sentsibilitatea Ondartza baserria zaharberritzeko eta erakusketa eta zaintza aretoa hemen jartzeko. Erreferentzia garrantzitsua da Bergarako. VICTORIANO GALLASTEGI / Alkatea GOITB/03-06-25

BERAIEKDIÑOĖ/ Maite Aristegi



Intzetan

Garrak Intxorta gaine-tik ere ikusiko ziren. Derrigorrez behar du indartsua hainbeste zabor erretzeko! Denak pilatzen lanak! Barrenean, hainbat agintariren hipokresia eta lotsagabekeria jarri genituen, arazoak konpondu beharrean, inori errua bota, bazterrak nahastu eta kulpa barikoen artean hainbeste sufimendu eragiten duten horiena. Munduko diru guztia bota genuen hurrengo, horixe da eta alde guztietan faltsukeria, konpenezina eta samin gehienen iturria. Ondoren, burdikada bat pater jaurti genuen sutara: batez ere Madril aldean eten barrik ateratzen diharduten lege zapaltzaile eta ate ixtaile denak, bake irtenbideen edota Herri eraikuntzan dabiltzanei lapurretan egiteko erabiltzen duten “demokrata” mozorro guztiak, han eta hemen bazterrak txikitu eta herritarroi ezer onik ez eskaintzeko idatzita dauden proiektu txikitzaile ugari, herriaren alde lan egi-

tearren zulo ilunetara bidaltzeko erabilitako agindu, auto, ordena eta beste hainbeste paper-tzar. Hemendik kanpo, hiru edo lau handikiren esku dagoen Munduko Komertzio Erakundearen aginkeria eta gose-eragile diren legedi izugarriak, mundua eta mundutarrak eskutan hartzen den jostailu-txo bat bezala ikusten duten horiena... Eta horren aurrean, guk askotan erakusten dugun axolagabekeria ere, sutara!

“Amets egin genuen sorgin apendizok erretako haiek ez genituela berpizten lagako”

Ene, zer zen baina hura! Sua alde guztietatik! Gaur egungo suge eta muskerrak sutan, San Juan San Juan! Garixak eta artuak gorde, gorde! Baina betikoak, eh, ez anima kendutako transjenikoak (Animo, Jose Bove, lur biziaren alde borrokatzeagatik astean giltzaperatua!). Eta denak erretzeaz zirela, hodei zaparrada batek itzali zituen suok. Goizean, ihintz zoragarri hartan oinutsik ibiltzean amets egin genuen sorgin apendizok, erre eta sutako hauts bihurtutako haiek ez genituela berriz berpizten lagako.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERRIGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 27**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 28**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 29**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 30**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 1**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 2**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 3**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emailak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirolegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorenzo |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00. |
| 19:00. | Angiozar |
| Sierbak | Domekak: 11:30. |
| Lanegunak: 19:15. | Moja Zaharrak |
| Zapatuak: | Lanegunak: 09:00. |
| 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Domekak: | Mizpirualde |
| 11:30, 13:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Osintxu | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 12:30. | Antzuola |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: |
| Elosu | 09:00, 11:30. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

PILOTA SAILAREN ZOZKETA
Bergara KEko Pilota Sailak egindako zozketan 1.095 izan da zerbakia saritua. Txartelaren jabeak pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro eskuratuko ditu. 2.767 zerbakiari, berriz, Infernukua tabernan lau lagunendako afaría eta 200 euro egokitu zaizkio. Saritutakoei 943 76 23 01 (Reyes Azkoitia) telefonora deitu beharko dute.

INFORMATIKA IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

SAN MARTZIALERAKO MAHAIAK
San Martzialerako mahaia hilaren 30era arte hartu ahal dira errentan kultura etxean, aste barruan, 18:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

BERGARA KIROL ELKARTEAREN ZOZKETA
Bergara Kirol Elkartek maiatzean egindako zozketan 1.731 zerbakia izan da saritua. Txartel irabazlea Belengua tabernan saldu zuten.

JARDUNENAGENDA

TXALAPARTA IKASTAROA JARDUNEN ESKUTIK
Jardunek antolatuta, txalaparta ikastaroa izango da Arrizuriagan uztaillaren 14tik 18ra, 18:00etatik 19:00etara. Jarduneko bazkide direnendako 6 euroko prezioa izango da eta gainerakoendako, 8 euro. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakietan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Bedelkar elkarteak sortzeko lehen batzarra

Herriko dendariak Bedelkar sortzeko lehen batzarra egin zuten 1993ko ekainaren 30ean. 175 dendari inguru batu ziren UNEDen egindako batzarrean. Azalera handiko saltegien mehatxuaren aurrean, dendariak Udalariei euren interesak kontuan izateko eskatu zioten lehen batzar hartan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Katamixarra"



Urtxintxa, kolore nabarrekoa bereziki.
—Bat nabarraua dok, da beste bat gorrixaua; oni katagorrixa, da nabarrai katamixarra.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 20	12 °C
MAXIMOA Zapatua, 21	40 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	11,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	24 °C	16 °C	— l/m ²
Eguena, 19	28 °C	14 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 20	37 °C	12 °C	— l/m ²
Zapatua, 21	40 °C	16 °C	— l/m ²
Domeka, 22	39 °C	14 °C	— l/m ²
Astelehena, 23	24 °C	18 °C	11,4 l/m ²
Martitzena, 24	27 °C	18 °C	0,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

TXIRRINDUZALEEN IRTEERA

Bergarako Txirrindulari Elkartek uztaillaren 12an Neilako Lakuetara joateko irteera antolatu du. Goizean irten-go dira, autobusez, eta Neilako Lakuen inguruan 80 kilometro inguruko ibilbidea egiteko asmoa daukate. Txirrindulari elkarteak herriko zaleei irteeran parte hartzeko dei egiten die. Izene-matea Arrizuriko i2 kirol dendan (943 76 41 63) edo Zubietako Biciprecision Igartua dendan (943 76 11 21) egin daiteke.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

HIRIGINTZA/ Santa Marina egunerako irekiko dute, baina inaugurazio ofiziala uztailaren 20an izango da

Santa Marina parrokia uztailaren 18an irekiko dute goitik behera zaharberrituta

MONIKA BELASTEGI

Zaharberritze lanengatik urtebete itxita egon eta gero, uztailaren 18an zabalduko dute Santa Marina parrokia, Santa Marina egunarekin bat eginez. Inaugurazioa, berriz, uztailaren 20an egingo dute. Eliza Babes Bereziko eraikin izendatu du Jaurlaritzak.

Iazko uztailaren 22an itxi zuten parrokia zaharberritze lanei ekiteko, eta kanpotik zein barrutik zaharberritu dute. Xabier Azkoitia apaizak bereziki azpimarratu du zaharberritu hitza; izan ere, "parrokia XVIII. mende amaieran zeukan itxurara itzuli dugu, XXI. mendeko teknologiaz baliatuz. Azken batean, eraikinaren iraupena bermatzeko egin beharrekoak egin dira, baina eraikinari minik egin gabe".

Azkoitiak azaldu duenez, proiektu osoak hiru oinarri edo irizpide jarraitu ditu: bata, elizaren erabilpena ziurtatzea; bestea, arduratsu jardutea, eta azkena, ondarea zaintzea. Eta gehitu duenez, hiru irizpideok bete egin dituzte: "Erabilpenari dagokionez, eta eraikina hainbat zerbitzu eskaini eta herritarrak batzeko gunea dela kontuan izanda, horretara egokitu dugu: argiteria, berogailu eta megafonia sistema berriak jarri ditugu. Baina horrez gain, oztopo arkitektonikoak ere kendu egin ditugu, ahal izan dugun neurrian, guztien erositasuna bermatzeko asmoz".

Bestetik, lanok arduratsu egin dituztela azaldu du, "helburua ondarea zaintzea" izan delako. Horren ildotik, eraikinak "izugarritzko indarra" hartu duela gehitu du, "Gotikoa bere indar guztiarekin ageri da orain".



Barruko eta kanpoko aldetik zaharberritu dute Santa Marina eliza.

Gainera, horri guztiari lotuta, Santa Marina elizak Babes Berezia duen eraikina dela hartu behar da kontuan. Azkoitiak azaldu duenez, "aste honetan bertan jakinarazi digute Jaurlaritzatik Santa Marina, osotasunean, Babes Bereziko eraikin izendatu dutela. Horrek esan nahi du, horrelako eraikinei maila goreneko babesa dagokiela, eta, besteak beste, egiten diren eraberitzetarako jarduerak eraikinaren egitura eta ezaugarriak errespetatu beharko dituztela, eta ezin izango zaiela inolaz ere diseinu berriko ekarpenik egin".

LANAK LAU FASETAN BANATUTA

Lau fasetan banatuta egin dituzte lanok. Batetik, berogailu, argi eta megafonia sistema berriak jarri dizkiote. Horrekin batera, ganga azpiak, paretak eta zuta-beak konpondu eta garbitu dituzte, eta baita korroa ere. Bestetik, erretaula nagusia eta txikiagoak egokitu eta garbitu dituzte, eta horrekin batera irudiak eta koadroak. Hirugarrenik, kanpoko aldetik ere zaharberritu eta garbitu dituzte elizaren hormak, eta azkenik, sakristau etxea ere goitik behera berritu dute. Sakristau etxean gainera, komunak jarri dituzte eta baita igogailua ere.

Lan horiek guztiak ia bukatuta dauden arren ukitu txikiren bat falta da oraindik, baina uztailaren 20ko inaugurazio ekitaldirako guztia prest egongo da. Inaugurazio egunean, besteak beste, Gotzaina eta Miren Azkarate Kultura sailburua egongo dira.

Lanen kostuari dagokionez, 1.502.000 euro inguru aurreikusitako bazituzten ere, "hainbat ezusteko direla-eta, zerbait gehiago izango da, 1.682.000 inguru", Azkoitiak esan duenez.

Urteetan ezkutuan egondakoak agerian

Santa Marina zaharberritzeko lanek ekarri dute ezustekorik. Urteetan ezkutuan egondako hainbat gauza utzi dituzte agerian. Horietako bat argia da. Elizak barruko aldetik jatorrizko kolorea berreskuratu duenean argitasun handia duela erakutsi du. Horrez gain, lanak egin bitartean azalean geratu den beste gauzetako bat, gangetako margoak dira: ezkerreko eta erdiko ganga azpitan azaldutako margoak, hain justu ere. Bestalde, erre-

taula nagusiaren alboetan dauden txikiagoak garbitzean, fondo zuria dutela ikusi da, nahiz eta orain arte ilunak zirela pentsatu. Xabier Azkoitiak esan duenez, zaharberritze lanek aurrera egin ahala, eraikina haren historia kontatzen joan da, eta gaur egun, "elizaren historia guztia dakigu". Bestalde aipatzekoa da, sakristau etxearen aldaketa. Elizan zeuden balio liturgikorik gabeko koadro eta irudiak gordetzeko erabiliko dute, besteak beste.

San Martzialera letania astelehenean

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean, ekainak 30, San Martzial eguna izango da. Hori horrela, San Martzialerako igotza izango da letania erretratuz.

Santa Marinatik abiatuko da letania, 07:30ean, eta San Martzialera iritsi eta gero, meza egingo dute ermitan. Mezaren ondoren, San Joxepe elkarteko kideek txokolataa banatuko diete hurbilduko diren guztiei.

Letania astelehenean izango den arren, San Martzialgo erromeria, ohitura den bezala, uztaileko lehenengo domekan izango da, uztailaren 6an, hain justu ere.

UZTAILAREN 6AN, ERROMERIA

Errommeria egunera 09:30etan hasiko da, alboradarekin. 10:00etan, burdi igoera egingo dute eta 11:00etan, meza nagusia, San Martzialen. Ondoren, Xamat dantza taldeak emanaldia egingo du, eta gero, ohiko aureskua egingo dute. Dantza saioa bukatzean, Narbaizak eta Egileorrek bertso saioa egingo dute, eta gero, abesti herrikoiak egongo dira kantuan.

Bazkalondoan, haurrentako jolasak, herri jolasak eta erromeria egongo dira. Jai eguna 21:00etan bukatuko da, jaitsiera-ko txupinazoarekin.



Herritar ugari hartzen du parte San Martzialeko letanian astean barrena izanda ere.

MONIKA BELASTEGI



MONIKA BELASTEGI

Alderdien bulegoak udaletxeko ganbaran daude. Irudian, Sozialista Abertzaleak taldearen bulegoa.

POLITIKA/ Adierazpena gutun bidez jasotzea ez zaie "forma batere egokia iruditu"

BA kexu, udaletxeko bulegoa lagatzeko esan diotelako

MONIKA BELASTEGI

Bergara Aurrerak martitzenean prentsurrekoan esan zuenez, alkateak sinatutako gutun baten bidez jaso dute bulegoa lagatzeko jakinarazpena. Ekainaren 24rako epea eman zieten horretarako. Formak ez zaizkie egokiak iruditu, eta bulegoan segituko dutela esan zuten.

"Gutunean orain arte udaletxean erabili izan dugun bulegoa hustu eta giltzak entregatzeko dio". Hori ikusita, taldeko bi kide Victoriano Gallastegi alkatearengana zuzendu zirela azaldu zuten Bergara Aurrerako kideek, "haiek formak ez zirela adierazteko". Prentsurrekoan zera gehitu zuten: "Victorianok esan zigun

gauzak hitzez hitz ez hartzeko, baina gure egoeraren eta Udalaren eraketaren gainean gurekin egoteko asmorik ba ote zuen galdezterakoan, ezezko erantzuna jaso genuen".

FORMA DESEGOKIAK

Gutun bat jaso eta bestelako azalpen barik bulegoa lagatzeko epea finkatzea triste iruditu zaiela adierazi zuten Bergara Aurrerako kideek: "Formak ez zaizkigu batere egokiak iruditu".

Bulegoa lagatzeko eman dieten arrazoa ere ez zaie egokia iruditu Bergara Aurrerako kideei: "Udalean sartutako talde berriek -Aralarrek eta EBk- ere bulegoa behar dutela da gurea lagatzeko eman diguten arrazoa. Hori aitzakia besterik ez zaigu

iruditzen. Izan ere, zer gertatuko zatekeen hauteskundetan aurkezteko arazorik izan ezean? Bulego nahikoa dago beste alderdiendako ere. Gainera, EAJ-EA batera joanda, zergatik erabiltzen dituzte bi bulego?"

Horrekin, bulegoa erabiltzen segitzeko asmoa dutela adierazi zuten: "Uste dugulako herriak horretarako legitimitatea eman digula, eta herriaren alde lan egiteko bulegoa behar dugulako".

Bestalde, EAJ-EAk Bergara Aurrerarekin berba egiteko asmorik ez duela azaldu zuten: "Hori oso larria iruditzen zaigu, bereziki guztiz kontrajarria delako alkateak eta hainbat zinegotzik kanpainaren eta hauteskundearen aurretik azaldutako jarrerarekin".

Liburutegiak 'Biblioporrak' liburu eskaintza kaleratu du

MONIKA BELASTEGI

Azkeneko urteotan egin bezala, Udak Liburutegiak *Biblioporrak* eskaintza kaleratu du. Adinaren araberako sei taldetan banatuta, udan irakurtzeko liburu gomendioa egiten duen esku-orria da *Biblioporrak*.

Euskarazko eta gaztelaniazko 68 liburu gomendatzen ditu *Biblioporrak* eskaintzak. Udan denbora libre luzeagoa dugula kontuan izanda, irakurzaletasuna bultzatzea du helburu, eta adinaren araberako sei taldetan banatuta, adin bakoitzari egokitutako eleberriak ditu oinarri.

Lehenengo taldean -zero urtetik aurrerako taldean- hamahiru lan daude: R. Alcántararen *Tento eta itsasoa*; F. Krahn-en *Inork ikusi al ditu guraizeak?* eta J. Carlinen *La cama de mamá*, besteak beste.

Bigarren taldean -6 urtetik aurrerako taldean- bederatzi eleberri daude: E. Urberuagaren *Sararen basoa*; M. Muruaren *Maripuzker* eta C. Gilen *Un fantasma con asma*, besteak beste.

Hirugarren taldean -8 urtetik gorako taldean- zortzi liburu daude: Kurusaren *La calle es libre*,

J. Suárezen *Luzi* eta Txilikuren *Horazio eta Jaguarra*, besteak beste.

Laugarren taldean -10 urtetik gorako taldean- zortzi eleberri daude: P. Añorgaren *Txinpartaren izakiak* eta A. Espaltzaren *Urtegi jauna*, beste batzuen artean.

Gazteen atalean, berriz, hamabi lan daude: G. Lluch-en *Jokoa.com* eta I. Zalduren *Kea ur gainean*, besteak beste.

Azkenik, helduen taldean 18 eleberri gomendatzen ditu *Biblioporrak* eskaintzak: H. Etxeberriaren *Eulien bazka*, C. Linken *La cultivadora de rosas*, X. Montoiaren *Uda betiko balitz!* eta S. Parsipurren *Mujeres sin hombres*, besteak beste.

LIBURUTEGIAK UDAKO ORDUTEGIA MARTITZENETIK AURRERA

Horrez gain, liburutegiak udako ordutegiari ekingo martitzenetik, uztailaren letik, aurrera. 08:00etatik 13:30era egongo da zabalik eta, horrez gain, astelehenean eta eguenetan arratsalde ere egongo da zabalik; 16:00etatik 20:00etara, hain justu. Bestalde, liburutegia itxita egongo da abuztuaren 11tik 17rako astean, oporrak direla-eta.

LABUR

Irizar jauregiko KZGuneak beste ordutegi bat izango du uztailean

KZGuneak aldatu egingo du ordutegia uztailean. Uztailearen 1etik aurrera hauxe izango da ordutegi berria: 08:00etatik 16:00etara.

Horrez gain, merkatarien ordutegira egokitutako Internet ikastaroa antolatu du KZGuneak. Hogei orduko ikastaroa izango da, ekainaren 30ean hasi eta uztailearen 11ra bitartean; ordua, berriz, 14:00etatik 16:00etara. Izena KZGunean eman daiteke, edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

KZGunea azaroan zabaldu zuten, eta ikastaroak emateko gela bat eta erabilera libreko beste gela bat dauka. Ordenagailuak erabiltzea eta ikastaroak berak doan dira.

Langileak mugagabeko greban Betiko enpresan

MONIKA BELASTEGI

San Juango Betiko SA enpresako langileek mugagabeko greba hasi zuten astelehenean. Enpresa Ituna negoziatzen dihardute Zuzendaritzarekin; hala ere, adostasunik egin ez, eta grebari ekitea erabaki dute, ELAko ordezkariak azaldu dutenaren arabera.

Hiru dira bereziki langileen eskariak: batetik, soldataren %5,25eko igoera eskatzen dute; bestetik, lan jarduna 12 orduan murriztea; eta, azkenik, hilero 30 euroko osagarria, hamalau pagatan.

ELAko ordezkariak esan duenez, langileek ez dituzte eskaera horiek aldatuko: "Eskaera horiek minimoak dira, eta ez dira gehiago jaitsiko". Negoziaziotan hasi zirenean, hauek ziren eskaerak: soldataren %6,5eko igoera; lan jarduna 23 orduan murriztea; eta 90 euroko osagarria.

Betiko SA enpresan errodamenduak egiten dituzte, eta hamasei langilek dihardute. Gauzak konpondu arte greban segituko dutela aurreratu dute, eta egunero lantegia aurrean kontzentratzeaz gainera, San Martin plazan ere egingo dituzte elkarretaratzeak.



Enpresa Ituna negoziatzen dihardute Betiko SA enpresan, eta hori da greba egiteko arrazoa.

ELKARRIZKETA

BORJA BARRUTIABENGOA / ARKITEKTO TEKNIKOA

“Herriko gune batzuetan etxe asko dago, eta bizi-espazioa errespetatu behar da”

MONIKA BELASTEGI

Borja Barrutiabengoak 22 urte ditu. 2002ko ekainean Arkitektura Tekniko ikasketak bukatu zituen eta aurreko astean, Ikasketak Bukerako Lehen Sari nazionala jaso zuen Arkitektura Teknikoan.

Oso mutil fina zaitugu. Unibertsitatean espediente onena izan zenuen eta Estatu mailako espediente onenaren lehen saria jaso duzu.

Bai. 2002ko promozioko espediente akademiko onena izan nuen Arkitektura Teknikoan, Nafarroako Unibertsitatean.

Horrez gain, Hezkuntza Ministerioak antolatzen du sariaketa bat espediente hobereendako; hori horrela, unibertsitateak egiten duena da karrerako hiru espediente onenak hartu, eta gutun baten bidez jakinarazi zidaten Ministerioak antolatutako lehiaketa horretan parte hartzeko aukera nuela. Beharrezko ziren agiriak bidali nituen Ministeriora, eta aurreko astean bidali zidaten gutun bat handik, esaten Ikasketak Bukerako Lehen Sari Nazionala Arkitektura Teknikoan eman didatela. Sari bana-keta Madrilen izango da, uda ondoren.

Eta zelan egiten da hori? Ikasturtez ikasturte zein nota behar da Estatu mailako espediente onenaren saria jasotzeko?


Egia esan, oso nota onak dauzkat, bikain eta ohorezko matrakula asko. Bueno, lehen mailan bi suspentso ere izan nituen, baina horien ondoren guztia urtean ateratu dut, eta nota onarekin. Eta zelan egiten den? Bada, konstantziarekin.

Argi zenez Arkitektura Teknikoa egin nahi zenuela?

Oso gustura ikasi dudana karrera da. UBI bukatu nuenean ez neukan horren garbi. Ingeniaritzaren bat ikastea ere aztertu nuen, baina gauza bat neukan garbi: ez nuen nahi ikasketak amaitu eta besteren kontura lan egin; nahiago nuen nire kabuz lan egiteko aukera emango zidan zer-bait egin. Hori horrela, Arkitektura Teknikoak aukera hori eskaintzen zidan, eta gustuko nuenez... Iazko ekainean amaitu zenituen ikasketak. Orain zertan diharduzu?

Donostian dihardut lanean, etxebizitza batzuk eraikitzen. Horrelako saria jasotzeak lanerako atek irekitzen ditu?

Nik uste dut baietz, eta espero dut baietz, baina zein puntutaraino ez dakit.



MONIKA BELASTEGI

“Uste dut sariak lanerako atek irekitzeko balioko duela, baina ez dakit zenbateraino”

Zein asmo duzu etorkizunari begira? Non ikusten duzu zeure burua?

Dihardudanean segitzea, baina ez nuke jakingo gehiago zehazten. Ez daukat helburu finkorik. Helburu finkorik ez izan arren, norantz jo nahiko zenuke?

Nire kontura lan egin nahiko nuke. Batez ere, eraikinak zaharberritzea dut gustuko. Gauza berriak egitea baino, zaharberritzea gehiago gustatzen zait. Zaharberritzea diozula, zelan ikusten duzu Bergara zentzu horretan?

Orokorrean, eraikitzen diharduten zona berriak, Ibargarai, esaterako, gustatzen zaizkit, ertzain etxe albokoak izan ezik, bata bestearen gainean daudelako. Toki batzuetan etxe gutxiago egin beharko liratekeela uste dut, eta bizi-espazioa gehiago errespetatu.

“Nire kontura lan egitea nahiko nuke, eta eraikinen zaharberritzea dut gustuko”

Bestetik, alde zaharrari nortasun handiagoa emateko adokinatutako etxeak ere egiteko nuke. Bestalde, ondarea ondo zainduta dagoela iruditzen zait. Eta ondo deritzot balio historikoa duten etxeak birgaitzeari, etxebizitzetarako edo beste erabilpenen bat emateko. Azken baten, iraupena ziurtatzeko modu bat da.

Zer azpimarratuko zenuke ondare horretatik?

Santa Ana. Ez gaur egun dagoen moduan, baina oso gune polita da.

Tradizionalak gara ala joera berriei tartea lagatzen diegu?

Nahiko tradizionalak gara. Etxeak, esaterako, beti egiten dira estilo berekoak. Ezberdin eraiki den gauza bakarria ertzain etxea da. Leku publikoetara emango nieke nik ukitu ezberdina; aproposak dira horretarako autobus geltokiak, zine aretoak, antzokiak...

Anselmo Arrietak 50 urte egingo ditu abade domekan

MONIKA BELASTEGI

Anselmo Arrietak 75 urte ditu, eta domekan 50 urte beteko dira lehen meza esan zuela. Bergarra da, baina urte asko eman ditu hemendik kanpo. 1953ko ekainaren 28an abadetuta zen, Donostiako Artzain Onaren elizan, eta hurrengo egunean, ekainaren 29an, San Pedro egunez, esan zuen lehenengo meza San Pedro parrokan.

Horren ondoren, lau urte eman zituen Angiozarren abade; bost urte Madrilen ikasketak sakontzen; eta gero Errenterian jardun zuen abade 22 urtez. Handik Ekuadorrera joan zen, misiotan, eta 19 urte eman ditu han. Orain dela gutxi etorri da, maia-



Anselmo Arrieta.

tzean, eta erretiratzera etorri dela azaldu du. Berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko meza esango du etzi, domeka, 12:30ean, San Pedron.

LABUR

Alcer elkarteak organo emaileak lortzeko mahaia jarriko du bihar Irala kalean

Alcer elkarteko kideek (giltzurruneko gaixoen elkarte) organo emaileak lortzeko mahaia jarriko dute bihar, zapatua, Irala kalean (Peñalba ondoan), 11:30etik 14:00etara. Alcer elkarteko kideek azaldu dutenez, dagoeneko ez dago adin mugarik organo emaile izateko. Orain arte 18 urtetik gorakoak bakarrik izan zitezkeen organo emaile; gaur egun, berriz, umeak ere izan daitezke emaile, betiere, gurasoen baimenarekin.

Bergaran 11 lagun daude Alcer elkartean. Horietatik bik bina transplante izan dituzte; zazpik, transplante bana; eta gainerako biak transplantearen zain daude.



San Juan Su erraldoia San Martin plazan

Astehenean, San Juan bezpera, gogo, nahi eta asmo txar guztiak erretzeko gaua izan zen. Halaxe egin zuen hainbatek herriko zenbait taldek antolatutako San Juan Suan. Iaz antolatu zuten lehenengoz, eta izandako arrakasta ikusita, aurten ere egin dute.

Jende ugari hurreratu zen San Martin plazara sua ikustera, eta botatako euri zaparrada ere ez zen gauza izan suari aurre egiteko.



POL-POLEKO BETERANOAK ASTURIASEN

Pol-Poleko mendizale beteranoak Asturiasen egon ziren aurreko asteburuan. Guztira 50 lagun inguru joan ziren (Juan Mari Sasigainek utzitako argazkian agertzen direnak), eta Europako Mendi Tontorren inguruan ibili ziren. Zapatuan Mirador del Cabletik Ponceboseko Zubiraino dagoen zeharkaldia egin zuten, 17 kilometro guztira, eta hango paraje ederrekin gozatzeko aukera izan zuten. Bero handia izan zuten, eta atsedean hartzeko Po de Cabralesen egin zuten lo zapatu gauean. Domekan itzuli ziren Bergarara, asteburuan primeran ibili eta gero. Pol-Poleko beteranoek hainbat irteera egin dituzte aurtan, eta uztailean beste bat egiteko asmoa daukate.

ARANZADIKOEN SAN JUAN 'SUA

Astlehenean, Aranzadi Ikastolak ikastetxeko jaia ospatu zuen. Arratsaldean ikasleek egindako jaialdia egon zen Seminarioko jaialdia egon zen, neska-mutikoendako buruhandiak atera zituzten. Gauean, berri, Gurasoen Kontseiluak antolatutako afaria izan zen, eta 230 lagun inguru elkartu ziren, irakasle, guraso eta ikasleak tartean. Giro ederrean afaldu eta gero, San Juan bezpera izanik, San Juan Surik ez zen falta izan, Ane Barrusok bidali digun argazkian ikusten denez.

JARDUNEN OLINPIADAK



MARRAZOAK TXAPELDUN!

Zapatuan, Jardunek antolatutako Olinpiadako azken jardunaldia jokatu zen. Taldeek Sukaldaritza Lehiaketa izan zuten, ea nork prestatu entsalada gozoena. Argiñanorenak egiten ahalegindu ziren sukaldari gaztetxoak, eta gero, prestatutakoa jan zuten lagunartean. Azkenean, Marrazoak taldea izan da txapeladuna, eta sari moduan egun baterako txangoa irabazi du. Bigarren eta hirugarren geratu diren Tutukiak eta Sorbandurriatarrak taldekoek, berri, kamisetak eskuratu zituzten. Partaideen arten hainbat opari zozketatu zituzten zapatuan.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua


Zerbitzu publikoa eta
era guztiak

ITURGINTZA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNERO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA


Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

MINGAINARITIRAKA



Javi Salas

TXARTEL SALTZAILEA

La Victorian (Kordoba) jaioa, Javi Salas (23 urte) txikitan etorri zen familiarekin Bergarara bizi izatera, eta aski ezaguna da herrian. Euskal Elbarrituen Kolektiboko txartel saltzailea da joan den urtea ezkerro.

- Txartelak saltzeko sasoi onena? Negua, beharbada.
- Nortzuek erosten dute gehiago, gizonak ala emakumeek? Emakumeek.
- Baduzu saltzeko teknika sekreturik? Ez. Jendearekin atsegina izaten ahalegintzen naiz, besterik ez.
- Zure laneko gauza onena? Eta txarrena? Onena, etxetik gertu lan egitea; txarrena, berriz, lan baldintzak ez direla batere onak, seguru eta kontratu barik nabil-eta.
- Kalez kale ibiltzeko, oinez ala bizikletaz? Ibiltzea komeni zait, baina uda partean bizikletan ibiltzen naiz.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu? Paseatzea, musika entzutea, filmak ikustea...
- Film bat? Askio esango nituzke; adibidez, *El coleccionista de huesos*.
- Musika talde bat edo kantari bat? Denetik entzuten dut. Antonio Orozco atsegin dut.
- Telebistako saio bat? Eta ikusi ezin duzun bat? *La quinta esfera* (T5); txutxu-mutxuenak, berriz, ezin ditut jasan.
- Janari eta edari bana? Makarroiak eta Coca-Cola.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza? Azaletik hasten naiz.
- Besteengan gehien estimatzen duzuna? Konfiantza, egiazaletasuna, pazientzia...
- Zerk amorratzen zaitu? Arrazoi dudanean kontra egitea jendeak; baita poltsiko telefonoan galdutako deiak jasotzeak ere.
- Udan, igerilekua ala hondartza? Igerilekura joaten naiz, hondartzara joateko autoa behar da-eta.
- Loterian milioi bat euro irabaztekotan? Zuloak tapatu, etxebizitza erosi eta anaia txikiari gidabaimena ordaindu eta autoa erosi.
- Bidaia bat nora egingo zenuke? Maldivetako Uharteetara gustura joango nintzateke.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

AITOR ETXEBARRIA

32 URTE / SUKALDARIA / AGURAINEN BIZI DA

“Txikia izan arren herri bizia da Agurain, eta inguruan benetan toki ederrak daude”

EDU MENDIBIL

Gasteizen Ostalaritza ikasketak egin zituen Aitorrek 1989tik 1992ra bitartean, eta harrezkero toki askotan jardun du sukaldari lanetan: Bergaran, Bordelen, Ezkarain, Donostian, Bartzelonan, Biasterin eta Lekunberrin. 2001eko urtarrila ezkerro Gasteizko Palacio de Elorriaga hotolean dihardu lanean. Gustura dabilela diosku: “Lanbide honetan sekula ez dakizu non amaituko duzun, baina Gasteiz lan egiteko toki ona da. Jatetxea ondo dago, eta lan aldetik ezin gara kexatu. Aste barruan enpresekin eta partikularrekin batik bat egiten dugu lan, eta sasoi honetan lan dezentet daukagu, ezkontzak direla-eta”. Esan bezala, esperientzia luzea dauka Aitorrek ostalaritzan, eta, besteak beste, Bordeleko Le Chapon Fin, Bartzelonako Via Veneto eta Donostiako Arzak jatetxean jardun du lanean. Beka bati esker Bordelen hiru hilabete eman zituen, Bartzelonan sei hilabetez jardun zuen lanean eta Arzak-en, berriz, urtebetez jardun zuen, 1993an. Lana dela-eta toki batetik bestera ibili da azken 10 urteotan: “Beti izan naiz ipurterre sama-

“Gasteiz lan egiteko toki ona da. Jatetxea ondo dago, eta lan aldetik ezin gara kexatu”

rra, eta sukaldari ofizioa ere horrelakoa da, gorabehera asko izaten dira, eta, zorionez, toki asko ezagutzeko aukera izan dut urte hauetan. Azken baten, erronka moduan hartu ditut izandako lan eskaintzak, eta guztiak aberasgarriak gertatu dira. Ofizio honetan beti dago zerbait ikasteko, eta maila handiko sukaldariekin lan egiteko zortea izan dut”.

Agurainen bizi da Aitor, Ana neskalagunarekin: “Agurain oso ondo dago, asko gustatzen zait. Txikia izan arren herri bizia da. 4.500 biztanle inguru ditu eta lautadako hiriburua denez, jende asko etortzen da Agurainera, hemengo azokak beti jende asko erakarri izan du-eta. Harresiz inguratuta dago; herri polita da. Gasteiztar asko etortzen da aste bukaeretan, eta giro ederra egoten da. Hiri handi baten baino nahia-go dut herri txiki

baten bizi izatea. Agurain oso ondo dago”.

Egunero, lanera joan baino lehen, herrian bueltatxo bat ematea gogoko duela esan digu Aitorrek: “Goizean goiz irteten naiz, eta gero autoa hartzen dut lanera joateko. 23 kilometro besterik ez dago Gasteizeraino, eta segituan heltzen naiz lanera. Arratsalde partean itzultzen naiz eta bueltatxo bat ematen dugu herrian. Neskaren koadrilarekin irteten gara normalean. Jendea oso zabala da, eta primeran hartu naute”. Agurainen jai asko izaten dituztela dio Aitorrek: “Egun hauetan San Juanak ospatzen dira; gero, San Pedroten ere jaiak izango dira... Urtean barrena jai mordoak egoten da Agurainen”.

Lau sukaldarik dihardute Palacio de Elorriaga hotolean lanean, eta normalean astean pare bat egunean jai izaten du Aitorrek. Aisialdian mendian paseatzea du gustuko: “Oso toki estrategikoan dago Agurain, eta Altsasu eta Urbasa gertu daude. Sarritan joaten gara. Bestalde, Araba ezagutzen nabil poliki-poliki, eta benetan toki ederrak daude inguruan”.

Bergarara hiru astean behin edo etortzen da Aitor: “Familia eta lagunak bisitatzera joaten naiz, eta, bestalde, lagunak bitartez jasotzen ditut hango berriak. Lanagatik-eta ezin naiz joan nahi dudana guztietan, baina, logikoa denez, jaioterria faltan sumatzen dut zenbaitetan. Herrimina, badakizu...”.



EDEL
TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren herri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

LAN ESKAINTZA


Emakume bergararra behar da bulegoan lan egiteko

- Beharrezkoa:
- Informatika ezaguerak erabiltzaile mailan.
 - Harremanetarako gaitasuna.

Kontutan hartuko da:

- Administrazioan esperientzia edukitzea.

Interesatuak deitu
615 78 44 32 telefonora



KIROL ZERBITZUA

Labegaraietako pistan tenisean jarduteko 131 lagunek eman dute izena.

POLIKIROLDEGIA

Seiehun lagun inguruk hartuko dute parte aurtengo Uda Kanpainan

Lehen txandako jarduerak atzo hasi ziren; bigarren txanda hilaren 10etik 23ra izango da

EDU MENDIBIL

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako Uda Kanpainaren beste edizio bat hasi zen atzo. Sieihun lagun inguruk hartuko dute parte uztailearen 23ra bitartean eskainiko dituzten askotariko kirol jardueretan.

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko teknikariaren arabera, Uda Kanpainarekin urtean barrena egiten ez dituzten kirol berriak ezagutzeko aukera eskaini nahi diete herritarrei. Aurreko urteotan moduan, Kirol Zerbitzuak eta Diputazioak jarri dute abian Uda Kanpaina, eta Ugarteburuk adierazi digunez, jendearen erantzuna aurtengo ere ona izan da: "Adin guztietako jendea zuzendutako jarduerak antolatu ditugu, eta, oraingoz, pozik gaude jasotako erantzunarekin. Aurreko urteotan 600 lagun ingururen partaidetza izan dugu eta aurtengo ere kopuru horretara iristeko itxaropenaz gaude, bigarren txan-

darako izenematea oraindik zabalik dago-eta".

Lehen txandako jarduerak uztailearen 9ra arte egingo dira eta bigarren txanda uztailearen 10etik 23ra bitartean izango da. Bigarren txandarako izenematea uztailearen 8an amaituko da. Argibideetarako Kirol Zerbitzura (943 77 91 67) jo dezakete interesatuek.

'SPINNING'-A, BERRITASUNETAKO BAT
Aurtengo berritasunen artean *spinning*-a dago. Musikaren laguntzarekin bizikleta gainean egiten den ariketa da, eta erritmoa eta erresistentzia lantzen

"Urtean egiten ez diren kirolak ezagutzeko aukera eskaini nahi dugu"

IÑAKI UGARTEBURU

dira monitore baten gidaritzapean. 78 lagunek eman dute izena *spinning*-a egiteko, eta txanda bakarrekoa denez, bigarren txandan ez dute eskainiko. Bigarren txandan, igeriketa (hainbat maila eta adin guztietako jendearentzako), multiaktibitatea (kiroldegian egin daitezkeen hainbat kirol batzen dituen), tenisa, pilota jolasak eta eskalada eskainiko dituzte.

Iñaki Ugarteburuk zera adierazi digu: "Beste urte batzuetan igeriketa izan da jarduerak estimatuenetako bat, eta aurtengo berriz, ez du horrenbeste jendea izena eman. Tenisak gorakada handia izan du, eta *spinning*-ak interes berezia piztu du".

Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, tenisean 131 lagunek jardungo dute, haur igeriketan 125ek, areobikean 92k, patinajearen 14k, pilota jolasetan 17k, eskaladan 14k, defentsa pertsonalean hiruk, multiaktibitatean 44 lagun ibiliko dira eta igeriketan, azkenik, sei.

Igeri Elkarteak emaitza onak lortu zituen Azpeitian

E.M.

Ana Balentziaga, Olatz Fernández, Elisa Kortabarria eta Jone Amasorrain igerilariak infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan izan dira. Banaka eta errelebu probetan lehiatu ziren bergararrak Azpeitian.

Ana Balentziaga laugarren izan zen 200 metro estiloetan eta bosgarren izan zen estilo libreko 800 m-ko proban. Era berean, estilo libreko 400 m-ko proban seigarren sailkatu zen. Olatz Fernández, berriz, zortzigarren izan zen bular estiloko 200 m-ko proban, bular estiloko 100 m-ko proban hamabigarren izan zen eta estilo libreko 200 m-ko proban, hogeita batgarren. Elisa Kortabarria, aldiz,

zazpigarren izan zen bizkar estiloko 100 m-ko proban eta estilo libreko 100 m-ko proban, bederatzigarren. Azkenik, Jone Amasorrain zazpigarren izan zen bular estiloko 200 m-ko proban eta estilo libreko 200 m-ko proban. Igeri Elkarteak lau ordezkariak errelebutako probetan lehiatu ziren: 100 m-ko estilo proban zortzigarren izan ziren, estilo libreko 200 m-ko proban ere bosgarren geratu ziren eta estilo libreko 100 m-ko errelebu proban bederatzigarren izan ziren.

EUSKADIKO TXAPELKETA SANTURTZIN

Ana Balentziagak aste bukaerako Santurtzin jokatu den Euskadiko Txapelketan hartuko du parte, estilo libreko 100 eta 400 m-ko probetan eta estiloko 200 m-ko



Atzean, Balentziaga (ezkerrean) eta Fernández. Aurrean, Amasorrain eta Kortabarria

Futbito Txapelketako Ligako finala izango da domekan

E.M.

Mongatxurrak eta A Ze Flaxa taldeek Labegaraietako Futbito Txapelketako Ligako finala jokatu dute domekan kiroldegian, 11:00etan. Mongatxurrak-ek denboraldia biribiltzeko aukera izango du, Kopako finalean Bayer taldeari 3-2 irabazi zion-eta. Mongatxurrak taldeak ligako finala irabazten badu, ez litzateke joko

tuko Superkopako finala. Hala ere, lehia handia izango da, bi taldeek elkar ondo ezagutzen dituztelako. Mongatxurrak eta A Ze Flaxa talde bateranoak ditugu Labegaraietan, eta aurtengo ere euren esperientzia azaldu dute.

Joan den urteko edizioan A Ze Flaxak Kopa irabazi zuen eta Superkopako finalean liga eskuratu zuen Artusamak taldearen nagusitu zitzaion.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Argakian, Arloteak nesken taldea. Gaurko finalean Xukak taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

FUTBOLA

Gaztetxoan mailako nesken finala jokatu da gaur Ipintzan

Gaurtik uztailaren 18ra bitarteko egubakoitzetan jokatu dira finalak

Ipintzako futbol txapelketako lehen finala izango da gaur, egubakoitza: gaztetxoan mailako nesken finalean Arloteak eta Xukak taldeak izango dira aurrez aurre, 18:45ean.

Gaztetxoan mailako nesken txapelketan zazpi taldek jardun dute lehen eta Arloteak eta Xukak izan dira gaurko finalera iritsi direnak. Finalaren aurretik, 3. eta 4. posturako partidua jokatu dute Aranzadik eta Soraluze B taldeek, 18:00etan.

Beteranoen mailan, berriz, atzo eguna azken jardunaldia jokatzeko zen eta datorren aste- finalerdiak eta finala jokatu- ko dira. Astelehenean, hilak 30,

jokatu dira finalerdiak 20:00etan lehen eta 21:00etan bigarren. Mongatxurak taldea dagoeneko sailkatuta dago finalerdiarako eta beste hiru tokiak Txipiron, Bildurbarek Opel Lam, A Ze Flaxa eta Guipuzcoana taldeen artean erabakitzeak ziren atzoko jardunaldian. Lauretako bat finalerdietatik kanpo geratu da. Finala, esan bezala, datorren egubakoitzean, hilaren 4an, jokatu da, 19:45ean.

FUTBOL 11KO AZKEN JARDUNALDIAK HURRENGO ASTEAN

Datorren astean Futbol 11ko Txapelketak aurrera egingo du: astelehenean Gorriones eta Aristoi taldeen arteko partidua jokatu da Ipintzan, 19:00etan; martitzen hiru partidua izango dira: Osintxu-Gore (19:00etan), Ska

Libur taldeak Fo Fo Fo Elgetako taldearen aurka jokatu du 20:00etan eta, azkenik, Angiolak eta Bildurbarek taldeek neurtuko dituzte indarrak 21:00etan. Eguaztenean, uztailaren 2an, azken jardunaldia jokatu da: The Parpol-Ilari (19:00etan), Beti K.A.B.-La Juve (20:00etan) eta Indar Gorri-Komando Piperrak (21:00etan). Final laurdenak uztailaren 9an eta 10ean jokatu dira, finalerdiak hilaren 15ean eta 16an eta finala 18an.

Azkenik, senior mailako nesken txapelketako azken jardunaldia hilaren 3an izango da: Baztangak-Ou Pitxu O eta Arrano-Ogizun (biak 20:00etan) eta Antzuola-Plaust eta Pentol's Team-A Willy willy (21:00etan) partidua jokatu dira. Nesken finala uztailaren 11n jokatu da.

Preferente mailako taldeak hainbat fitxaketa lortu ditu

E.M.

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak hainbat fitxaketa lortu ditu datorren denboraldiari begira. Juanina Garaik zuzenduko duen taldeak uztailaren 16an hasiko da denboraldia gertatzen.

Aloña Mendi taldean ibili diren Xabi Lete defentsa eta Iñaki Mujika aurrelaria eta azken urtean Beasainekin jokatu duen Josetxo Lizarralde erdilaria Bergarara itzuliko dira. Era berean, Iban Unanua eta Jon Pagaldai antzularrak ere Juanina Garairen aginduetara izango dira hurrengo denboraldian. Unanue aurrelaria da eta Aloña Mendin jokatu du. Pagaldaiak, berriz, atzean jokatzeko

du. Oraindik guztiz lotuta ez dagoen arren, ziurrena da Pagaldai mahoneroekin jokatzeko.

Bestalde, baja garrantzitsua izango du taldeak, Jokin Mendiartz erdilaria futbola utzi beharrean izan da eta belauneko lesio baten erruz. Azken urteotan taldeko jokalaririk garrantzitsuenetako bat izan da Mendiartz eta haren baja igarriko du taldeak.

GOIAN EGOTEKO MODUKO TALDEA

Juanina Garaik zera adierazi digu: "Gure asmoa sailkapeneko aurreneko postuetan egotea izango da eta aurrean bezala, azken momentura arte igotzea lortzeko borrokan egon nahi dugu". Uztailaren hiru bat entrenamendu egin ostean, abuztuaren 18ra arte oporrak izango ditu taldeak.



Juanina Garaik preferente mailako taldea entrenatzen jarraituko du.

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRRINTZI

kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Uztaileko jazz emanaldiak egubakoitzetan izango dira, 22:30ean, Espoioian; zinea, berriz, eguenetan, 22:00etan, San Martin plazan

'Udako gauak' egitaraua gertu uztailean jazza eta abuztuan zinema eskaintzeko

MONIKA BELASTEGI

Udako gauak izeneko kultura egitaraua gertu dago. Azken hiru urteotan moduan, uztaileko eta abuztuko gauak alaitzea du helburu. Batetik, uztailean lau jazz emanaldi izango dira egubakoitz gauetan, Espoioian; bestetik, abuztuan lau film, eguenetan, San Martin plazan.

Uztailean jazz kontzertuak eta abuztuan film emanaldiak. Azkeneko hiru urteotako ildoari segituz, horixe da aurten ere Udako Kultura Sailak egiten duen udarako eskaintza.

Uztailean lau jazz kontzertu egongo dira; guztiak egubakoitzean, 22:30ean, Espoioian. Jazz emanaldien lehenengoa datorren egubakoitzean izango da, uztailearen 4an, hain justu ere. Finlandiatik etorritako Myöhä izeneko laukoteak hartuko du parte. Bigarrena uztailearen 11n izango da, eta euskaraz egindako jazz entzuteko aukera egongo da, Miren Aranburu Ensemble taldearekin. Hirugarrena uztailearen 18an izango da, eta Los Reyes del K.O. taldeak egingo du. Lau garren eta azken kontzertua, berriz, uztailearen 25ean izango da, eta Valladolideko RAO Triok hartuko du parte.

ABUZTUAN, PUNTAKO LAU FILM

Abuztuko filmak eguenetan izango dira, 22:00etan, San Martin plazan. Lau film ikusteko aukera egongo da: abuztuaren 7an, *Spiderman* (gaztelaniaz); abuztuaren 14an, *Ipar haizearen itzulerak* (euskaraz); abuztuaren 21ean, *La máquina del tiempo* (gaztelaniaz), eta abuztuaren 28an, *Guztiek nahi zuten giltza* (euskaraz).



MYÖHÄ Finlandiatik datoz eta jazz modernoa egiten dute. Oso talde gaztea da; lau kideen batez besteko adina 19 urtekoa da. Hala ere, bost denboraldi daramatzate elkarrekin jotzen. Taldea honako hauek osatzen dute: Jori Huhtala (kontrabaxua), Kalevi Louhivori (tronpeta), Joonas Leppänen (bateria) eta Tuomas Turunen-ek (pianoa).



LOS REYES DEL K.O. Marcos Coll-ek (harmonika) eta Adrian Costak (ahotsa eta gitarra) sortu zuten 1992an. Dena dela, eszenatokian Javier Vacasekin (baxua) eta Antonio Pax Álvarezekin (bateria) jarduten dute. Euren musikan eragin ugari nabari dira: blues beltza da nagusi, baina jazzari, *ragtime*-ari eta *gospel*-ari keinu ugari eginez.



MIREN ARANBURU ENSEMBLE 1966an sortu zen taldea, eta Miren Aranbururen ahotsa eta Jean Louis Hargus-en doinuak ditu oinarri. Horiez gain, piano, kontrabaxu eta bateriak osatzen dute taldea. Gutxi ikertutako sorkuntza bidea jorratzen du taldeak, eta jazzaren lengoia modernoa, inprobisazio musikala eta euskara batzen ditu.



RAO TRIO Talde originala da eta jazz musikari hainbat berrikuntza gehitu dizkio. Zanfona, baxuak eta bateriak osatzen dute hirukoa, eta tresnen originaltasunaz gain, egiten duten errepertorioa ere nahiko originala da: Anouar Brahem, Gilles Chabenat, Valentin Clastier eta horrelako konpositore tradizionalak oinarritzen dira.

Udal bandaren eta orkestraren saioak

MONIKA BELASTEGI

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du etzi, domeka, 12:30ean, Espoioian, San Pedro eguneko ospakizunen barruan. Emanaldian bost lan egingo ditu: Roigen *La gracia de Dios* pasodoblea; Suppé-ren *Caballería ligera* oboerura; Menken-en *Beauty and the beast*; San Miguelen *Euskeria* euskal rapsodia; eta Kander-en *Cabaret* musikala.

Emanaldiaren aurretik, 11:30ean, kalejira egingo du Udal Musika Bandak herriko kaleetan barrera.

BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOAREN EMANALDIA UZTAILAREN 4AN

Uztailearen 4an, egubakoitza, Bergarako Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du. San Pedro elizan izango da, 20:00etan, eta lau lan egingo ditu. Honako hauek, hain justu ere: Haendel-en *Concerto grosso*; Schubert-en *Sinfonia Nº 8 en si m*; Saint-Saëns-en *Dance macabre* eta Shore-ren *The lord of the ring*. Horrekin batera, uztailearen 6an, domeka, San Martzia erromeria ospatuko dela kontuan izanda, Miguel González Bastidaren *San Martzial* lana ere egingo dute emanaldi berean.



Udal Musika Bandak Espoioian egingo du emanaldia etzi, domeka, 12:30ean.

KULTURAPILULAK

Pintura eta zeramika erakusketak

Nahikari tabernan Luis Lascurain bergararraren ikasle-erakusketa dago ikusgai. Arrasate Margo Taldearen lanak dira eta hamalau margolanek osatzen dute. Erakusketa datorren astera arte egongo da ikusgai, tabernako ordutegian.

Bestalde, Simon Arrieta Zeramika Taldeko kideek ere ikasturtean barrera egindako lanak ikusgai jarri dituzte kultura etxean. Taldeko hamaita kideren lanek osatzen dute erakusketa, eta domekara arte egongo da zabalik.

Goibekokale

ELGETA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / 147. zenbakiaren gehigarri berezia



FERIXANAGUSIA02

JATORRIZKO ARGAZKIA: ANDER GILLENA

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK


Makina-erreminten salmenta,
laguntza teknikoko zerbitzua (SAT)
eta berreraikuntza

Zorionak elgetar guztioi!


Pagatza parke industriala 2B saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14. FAXa: 943 76 81 00

ATREBENTZIAEZPADA/ **Jaietako zein egun duzu gustukoen?****UXUE GAMARRA**
6 urte


Zapatua, tanborrada eguna dalako. Nahikua ensaio egin dogu, eta joteko gertu gaoz. Askok gustatzen jaten beste gauza bat gaztelu puzgarririk die; saltoka ondo pasatzen dot.

**JUAN BAUTISTA MARKIEGI**
75 urte

Umien Eguna. Bilobak zela jolas egiten daben ikusitta disfrutau egiten dot. Bestela, semiari pixka bat laguntzen ibiltzen naiz, eta jaixak ez dittut askorik bizi. Musikia gustetan jat.

**JOKIN EGIA**
6 urte


Barikua, zezenak eta pottokak darelako, eta pottoken gaiñian ibiltzen ondo pasatzen dotelako. Tanborradan jotzen ez doten arren, ikustera juango naiz, eta gustura, gaiñera.

**ENEIDA LARRAÑAGA**
31 urte

Jaixetan egun danak die onak. Eguenian jentia juergarako goguakin egoten da, baiña nik barikuan lan egin bihar dotenez, bariku gaba aprobetxau bihar... Azokako eguna be politta da.

**JASONE URIZAR**
32 urte

Barikua eta zapatua aprobetxatzen dittut gehixen, hurrengo egunian ez dalako lanik egin bihar. Eganen berbenia, zezenak eta tanborradia die Elgetako jaietako ekitaldi onenak.

**VICENTE GARCÍA**
61 urte

Domekia, azokako eguna. Ferixan ganadua, puestuak... Giro politta egoten da herrixan. Gaiñontzian, bueltatxo bat besterik ez dot egiten, eta ez berandura arte, gaiñera.

ALKATEAREN AGURRA/ **Patxi Basauri**

Aurten ere gertu ditugu Azoka nagusiko jaiak, eta beraz, aukera izango dugu, eguneroko bizimoduak sortzen dizkigun buruhausteak ahaztu eta egun batzuetan besterik ez bada ere, gure lagunekin eta ingurukoekin modu berezian disfrutatzen.

Aurten aukeratu berri ditugu datozen lau urteetan gure udal ordezkariak izango diren gizonak eta emakumeak

eta seguru nago elgetarren beharrei erantzunez, guztion artean Elgetako arazoak konpontzen eta herria hobetzen jarraituko dugula: zerbitzu gehiago eskainiz, eguneko zentroaren zein auditorioaren alde lan eginez, etxebizitzak eraikiz, industria herrira ekarriz, saihebidetaren lehenengo fasea eginez, Salvador kalea oinezkoentzako jarriz, traba arkitektonikoak kenduz, zero eta hiru urte bitarteko umeendako

haurtzaindegia ipiniz, baserri auzoak hobetuz, gaztediari lagunduz...

Etorkizunera begiratu nahi dugu eta proiektuak garatzen hasi, beti ere eredu sozio-ekonomiko orekatu batetatik abiatuta.

Era berean, aukera hau aprobetxatu gura dut bukatu den agintaldian bakoitzari dagokion batzordetik lan egin duten zinegotziei eta kultur zein kirol elkarteetan Elgeta hobe baten alde lan egin duten

elgetar guztiei, nire eskerrik beroena emateko.

Beti bezala, eta elgetar guztion izenean, bihotzez eskertu gura diet Jai batzordeko kide guztiei urte osoan egin duten lana-batzutan zaila- eta prestatu duten egitarau erakargarria.

Honela, jaiak partehartzaileagoak eta alaiagoak egin baitituzte.

Guztioi jai zoriontsu, alai eta jatorrak opa dizkizuet. Elkar ikusiko dugu.

*autopullmans***Araba**

**Jai zoriontsuak
pasa ditzazuela
elgetar guztiok!**

Tel.: 943 76 55 70 ANGIOZAR

*Elena Elkorok zorionik beroenak opa dizkizue
elgetar guztioi eta bertaratzen zaretenoi.*

Ondo pasau!

MUSIKA

Elgetako kaleak antzerki jantzita jaietan

Trapu Zaharra taldeak hiru obra eta Golokak umeendako lan bat eskainiko dituzte



'LA AVERÍA'

Trapu zaharra / Barikua, 4, 18:00etan

Senar-emazteak ezkontza batera abiatuko dira, eta bidean autoa izorratuko zaie. Jendearen laguntzarekin autoa mugitzen saiatuko dira, eta sekulako iskanbila sortuko dute.



'LAUGARREN TENOREA'

Trapu zaharra / Zapatua, 5, 18:00etan

Giza laguntzarako erakunde batek abeslari liriko bat bidali du kalera benefizentzia kontzertu bat eskaintzera. Hark ez du publiko horren aurrean kantatu nahi, eta baldintza asko jarriko ditu.

I.A.

Aurten antzerkiaren aldeko apustu berezia egin du Jai batzordeak, eta antzerkia, gainera, jai girora gerturatuz kalera aterako dute konpainia bik.

Umorea izan ohi da gehienetan euren lanen oinarri, betiere musikaz, komediaz... lagunduta. Horrela, taldeak antzerkia oso era berezian eta pertsonalean eskaintzen du.

UMEENDAKO LANA

Goloka taldeak 1983a ezkerro dihardu ume zein helduendako kale antzerkia egiten. Kalejira, berbena eta animazio eran. Antzerki finkoa ere ez dute albo batera lagatzen. Kale antzerkiaren bide berriak jorratzen dihardute, eta aurrerantzean ere hala segituko dute. Elgetan zapatu goizean egingo dute umeendako *Goloka park* lana.

Trapu Zaharra taldeak hiru lan eskainiko ditu Elgetan, hirurak ere arratsaldean. Ekoizpen propioen bidetik jotzen du antzerki talde horrek, eta eurek idatzitako antzezlanak ateratzen dituzte taula gainera zein kalera.



'ELVIS, ¡VETE YA!'

Trapu zaharra / Domeka, 6, 19:30ean


Emazteari tratu txarrak ematen dizkion gizon batek Santiago bidea egitea erabakiko du, emazteari ordura arteko jokabide basatiak albo batera lagako dituela adierazteko.



'GOLOKA PARK'

Goloka / Zapatua, 5, 11:30ean

Zirkuko animaliak eta animalia-hezitzailea kalez kale ibiliko dira. Jendearen artean nahastuta egongo diren sei pertsonaiak ordubetean une dibertigarriak pasaraziko dizkiote jendeari.



TER 2 SA

Ondo ibili jaixetan!

Indusketak • Garraioak • Lur-mugimenduak

Bulegoak 943 76 18 34
Faxa 943 76 03 08 BERGARA



Ondo pasau danok Ferixa Nagusixan!

LEMA SA torlojojintza

ELGETA

www.lemasa.com

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Eguena, 3

11:30 Jaixen hasieria umien pregoiak. **JOKULANDIA.** Nafarruatik ekarritako umiendako jolasak kiroldegi kanpoko kantxan: txirrista eta gaztelu puzgarrixak, koltxonetak, motorrak, bonba japoniarrak... Puxikak eta gozokixak banatuko ditue.

14:00 Etxafleruak eta kanpai hotsa.

16:00 Jokulandia, berriro be.

20:00 Elgeta tropikalaren aitzakixan, karibear jantzitta Hotelaren inguruan elkartuko dira Txatunga Bembe perkusiño taldiakin poteua egitteko.

21:30 Herri afarixa plazan (eurixa badihardu Espaloian).

23:00 Irrintzi Txapelketia.

Sarixak:

1.- 30 euro.

2.- 20 euro.

3.- 10 euro.

23:00 Karibear Dantzen Txapelketia.

Sarixak:

1.- 30 euro.

2.- 20 euro.

3.- 10 euro.

00:00 Kaskajuen etorreria. Zorionak, pregoia eta Larrain dantzia.

00:15 Akelarre taldiakin erromerixia plazan.



JOKULANDIA KIROLDEGIKO KANTXAN

Barikua, 4

10:00 Etxafleruak eta kanpai hotsa.

11:00 Jokulandia, umiendako jolasak kiroldegi kanpoko kantxan.

12:00 Mezia.

12:15 Motozerra erakustaldixa eta Perurena aitta-semiak harri-jasotzaillak Herriko Plazan.

14:00 Erretiratuendako bazkarixa Ozkarbi elkartian.

16:00 Jokulandia.

18:030 Kale antzerkixa: *La Avería*. Trapu Zaharra antzerki taldiakin.

19:30 Zezenak eta pottokak.

BOLATOKI

Aupa kaskajuok!

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artekale 2, **ELGETA**. 943 76 82 84

EGITARAUA


22:00 Erretiratuendako Bolo Txapelketia kiroldegiko bolatokixan.
23:30 Migdalia Etxeberria kantari kubatarra bere taldiakin.
00:00 Kontzertua gaztetxe ondoko lautadan: Goikorock (Bergara), N.C.M. (Bergara), Kokein (Eibar) eta Parasma (Lekeitio).
00:15 Gardokirekin erromerixia.
03:00 Kantzontzilo eta kulero karrera.

Zapatua, 5

10:30 Esnadeixa Eibarko txistularixekin.
11:30 Umiendako kale antzerkixa Goloka taldiakin: *Goloka park* ikuskizuna.
13:00 Asto karrera: Elgetako III. Txapelketia. Sarixak:
1.- 150 euro eta garagar zakua.
2.- 90 euro eta garagar zakua.
3.- 60 euro eta garagar zakua.
Asto karreraren parte hartzen daberen gaiñerakuek 30 euroko diru sarixa eta garagar zakua jasoko dabe.
18:00 Kale antzerkixa: *Laugarren tenorea* izeneko antzezlanara Trapu Zaharra konpainiakin.
19:00 Zezenak eta pottokak.
21:00 Tanborradako afarixa.
23:00 Ume eta nagusixen tanborradia. Elgetako martxaren aurkezpena egingo dute.
00:30 Egan taldiakin erromerixia, Mendizaleen plazan.
00:00 Kontzertua gaztetxe ondoko lautadan: (Spank)² (Arrasate), Hamabi tribu (Azkoitia) eta Ki sap (Valentzia).




MIGDALIA ETXEBERRIA KUBATARRA



ZEZENAK ETA POTTOKAK ZAPATUAN



TANDABORRADAN ELGETAKO MARTXIA



DOMEKAN GOIZIAN GOIZETIK AZOKIA

Domekia, 6


09:00 Azoka Nagusixa. Ganadu, makinaria eta burdindegiko erakusketia. Lora, barazki, ogi, gazta, fruta, txakolin eta landare salmentia. Eskulangilliak.
Elgetako trikitilarixak alaittuko dittue kaliak goizian.
12:00 Lau t'erdiko Pilota Txapelketako finalak Udal pilotalekuan.
18:00 Elgetako dantzarixen eta Os Galegos taldiaren dantzak.
19:30 Kale antzerkixa: *Elvis vete ya*. Trapu Zaharra taldiakin.
21:00 Sardiña-jana.
22:30 *Iturrian zer dago?* bertso, dantza eta musika ikuskizuna.

Domekia, 20

XIX. Euskadiko mendiko txirrindulari lasterketia

(23 urtetik beherakuendako eta elitekuendako)
Ibilbidia: Elgeta, Kanpanzar, Elorrio, Atxondo, Abadiño, Matiena, Berriz, Zaldibar Areitio gaiña (mendiko sarixa), Ermua, Eibar-Kantoi (tarteko helmugia), Eibar (bariantetik), Maltzaga, Soraluze, Bergara, Angiozar, Asentzio gaiña (mendiko sarixa), Elgeta, Elorrio, Berriz, Matiena (tarteko helmugia), Abadiño, Atxondo, Elorrio, Elgeta, Asentzio (Langarika gaiña, mendiko sarixa), Kanpanzar, Arrasate (tarteko helmugia), Bergara, Elgeta (helmugia).

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!



MAKINA-ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta.

JAI BATZORDEA

Jai batzordeak festen antolaketa utzi egin du, lau urteren ostean

Ondorengoei laguntzeko gertu egongo direla esan dute batzordeko kideek

I.A.

Ekainaren 20an aurkeztu zituzten aurtengo Azoka Nagusiko jaiak. Aurkezpen ekitaldian, orain arte jaiak antolatzen jardun duen batzordeak agur esan zuen.

Amaitu berri den agintaldiaren hasieran, jaiei beste ukitu bat eman nahian batzorde bat eratu zuten. Batzorde horretan ez zeuden zinegotziak eta Udaleko jendea bakarrik; izan ere, beste elgetar batzuek ere lanean jardun dute jaiak antolatzen. Herritarren eta haien jaien erreferentzia izan nahi zuen batzordeak, eta azken lau urte hauetan hori lortu dute kideek: herriari bizitasuna ematea, jaiak kalera aterata eta jendeak festan parte-hartzea bultzatuta.

HERRITARREN LANA

Esan bezala, Jai batzordean herritarrek lan handia egin dute. Batzarretara joa-



Jai batzordeko hainbat kide, jaiak aurkezteko egindako kabaret ikuskizunaren ostean.


nez batzuek, baina, batez ere, jaietako lau egunetan ekintza batean edo bestean laguntzen: "Aipatzekoa da Josu De Vegak urte hauetan batzordean egin duen lana. Elorriotik zekartzan esperientzia eta kontaktuak baliatu ditu Elgetako jaiak antolatzeko, eta hori oso garrantzitsua izan da", esan digu Olaia Jiménez batzordeko kideak.

Lau urteotan jaiei beste kutsu bat ematen saiatu dira: "Batetik, lehengo zerbait gauza berreskuratu egin ditugu; asto lasterketa, adibidez. Bestetik, danborrada eta beste hainbat ekitaldi arrakastatsu antolatu ditugu", dio Olaia Jiménezek. Adin eta mota guztietako jendearendako ekintzak antolatzea zen euren nahia, eta lortu dute.

Baina ez da erraza jaietan herritar guztien gustua egitea, eta lau urtetako lanak nekea ere badakar. Hori dela eta, batzordeko kideek errelebu emango diete ondoren datozenek, betiere behar dutenean laguntzeko gertu egongo direla ahaztu barik.

Herriari bizitasuna eman dio batzordeak, jaiak kalera aterata eta herritarren parte-hartzea bultzatuta

Asto lasterketa berriro egitea eta danborrada arrakastatsua antolatzea lorpen handiak izan dira taldearendako



BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa
20690 ELGETA
Tel: 943 76 82 21

Ondo pasau danok
jaixetan!



Jose Gallego eta semeak

■ Galdaragintza

■ Enpresen mantentze-lanak

ZORIONAK DENOI!

Berraondokua industrialdea 7. 20690 ELGETA.
semarsll@terra.net
Tel. 943 76 83 11. Faxa 943 76 83 10.

AZOKA NAGUSIXA

Herriko baserritar eta ganaduzaleak azokan

Ganaduak Berraondokuan egongo dira ikusgai eta salmenta postuak plazan

**Uztailaren 6a
09:00etan**

Ganadu, makinaria eta burdindegi erakusketia. Lora, barazki, ogi, gazta, fruta, txakolin eta landare salmentia.

I.A.
Domekan, goizean goiz hasita, ganadua egongo da ikusgai Berraondokuan, eta barazkiak, frutak, ogia, eztia-eta salgai plaza inguruan. Baita makineria eta burdinazko tresnak ere.


Garai baten *La feria de los bueyes* izenez ezagutzen zen Azoka Nagusixa. Arabatik ekartzen zituzten idiak, saltzeko edo truke-rako. Igitaiak eta sororako beste tresna batzuk ere egoten ziren salgai orduan. Barazkiak eta frutak ere ugari, bizkaitarrek ekarritako madariak eta gerezia, batez ere.

Gaur egun zortzi ganaduzale inguru etortzen dira azokara, elgetarrak eta ingurukoak, eta guztira 100 buru ekartzen dituzte. Eskulangintzak ere badu bere lekua, 25 artisau egoten dira-eta. Eta ogi, ezti eta barazki salmentako postuak beste horrenbeste izango dira.



Juan Arantzeta, ezti saltzailea
“Salmenta jendearen nahien araberakoa da”

Aurrez ere saldu izan du ezti Juanek Azoka Nagusixan, baita argizariz egindako ukendua ere: **“Aurten ezti bakarrik salduko dut, ez dut-eta ukendurik gertu izango”**, esan digu Juan Arantzeta. **Salmenta jendearen nahien araberakoa dela esan digu; Juanek, badaezpada, 75 kilo inguru eramango ditu.**



Agustin Beretxinaga, ganaduzalea
“Ganadu azokak behera egin du azken urteotan”

Behiak eta txahalak eramaten ditu urtero azokara Agustin Beretxinagak, eta hogeitau urte badira ganadua erakustera eramaten hasi zenetik. Urtez urte segitu badu ere, azokak berak gainbehera izan duela esan digu: **“Lehen, jende asko etortzen zen; orain, betikoak egoten garenez, monotono bihurtu da”**.



Gregorio Romaneli, burdindegia
“Aurten ez naiz Elgetako Azoka Nagusixan izango”

Burdindegia postuan ezagutu dute elgetarrek Romaneli, eta 37 urteren ostean ere horretan segitzen du. **Baserritarrendako eta zaldi probetarako tresnak saltzen ditu. Urte luzez azokan egon den arren, aurten San Ferminetako ferian egongo da, Iruñean, han gehiago saltzen da-eta.**

ONDO PASAU FERIXA NAGUSIKO JAIXETAN!



INDUSTRIAS EVE, SA
Trokelgintza eta estanpazioa

Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99



Jai zorientsuak opa dizkizuegu denoi!

Domingo Iturbe 8 **ELGETA** 943 76 81 12 **IRAILEAN berriz ere zuekin**

GOZAN FERDIXA
NAGUSIXA!



SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Solariuma
- Hidromasajea
- Algekin eginiko estalkia
- Kirol masajea
- Depilazioa laser bidez



ONDO IBILI JAIETAN!

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEMPRESA

Gazteen artean enplegua sustatzeko ekimena

AINZANE IRIZAR

Euskadiko Kutzaren ekimena da Gaztempresa; helburua da gazteen artean enplegua sustatzea eta enpresak sortzen laguntzea. Horretarako, MCC eta Bultz-Lan Consulting-en laguntza du ekimenak.


Lana topatzea ez da nahi bezain erraza izaten kasu askotan; norberak dituen ikasketekin bat datorren lanpostua topatzea, berriz, zer esanik ez.

Horregatik guztiagatik, eta gazteen artean enplegua sustatzeko eta enpresak sortzen laguntzeko helburuarekin sortu zuten Gaztempresa orain dela bederatzire urte.

Ekimen horren jarduera nagusia da enpresa-ekimen berriak laguntzea; horrela, ekintzaile berri horiei aholkularitza ematen diete eta finantzaketa-baldintza bereziak eskaintzen dizkiete. 60.000 eurotik beherako beharra duten proiektuak abian jartzeko da programa hori.

Interesa dutenek euren enpresa ekimen berriaren proiektua egin behar dute; proiektu hori aurkeztu eta gero, elkarrizketa egiten diote eskatzaileari eta proiektuaren bideragarritasuna aztertzen dute. Proiektua onartzen baldin badute, enpresa eratu eta abian jartzen da.

Informazio zabalagoa nahi duenak honako webgunera jo dezake: www.gaztempresa.com.



Gaztempresaren helburua da enplegua sustatzea.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Unai Olabarria

“Gazteondako jarduera gehiago behar da”

AINZANE IRIZAR

Hitzordura agertu ez zaigunez, etxera deitu eta ohean harra-patu dugu Unai. Lo egitea gustuko duela jakin dugu, beraz. Gero, berriz, isil samarra dela ere ikusi dugu; ala erdi lo ote zegoen oraindik?

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gazteondako jarduera eta ekitaldi gehiago antolatuko nituzke herrian.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Ez daukat ezer ere.

• Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Crónicas marcianas saioa ez zait batere gustatzen, nazka hartu nion; *El día después*, aldiz, asko gustatzen zait.

• Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?

Goenkale-ko Estefania pertsonaia benetan higuigarria da; Jose Mari Bakero, berriz, oso gustuko dut.

• Zerk amorratzen zaitu?

Berba egiten nabilenean kasurik egiten ez badidate amorratu egiten naiz.

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Jendea den bezalakoa azaltzea estimatzen dut, faltsukeriatan ez dabilen jendea estimatzen dut.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Osasunari eta diruari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Alaia naiz, baina baita burugorria ere.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Jai giroan gabiltzanean, batez ere, tabernetan.

• Zure bikotekide ideala zelakoa izango litzateke?


Harekin ondo konpontzea izango litzateke garrantzitsuen.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

New Yorkera joango nintzateke, neskalagunarekin.


• Etorkizunerako amets bat?

Farmazia baten lan egitea.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Motoak eta automobilak • LIBURU BAT: Ez dut irakurtzen
FILM BAT: 'A todo gas' • MUSIKA TALDEA: Su Ta Gar • KIROL TALDEA: Barça

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate





BERRIAK

Gertu-gertuko informazioa


Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

Egunero,
14:30ean eta 15:30ean
20:00etan, 21:00etan, 22:00etan eta 23:00etan

Aurkezleak:
Gorka Etxabe
Maidier Osa

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein plazatan daude argazkiko iturria eta ataria?

GALDEDEBALDE

1.

Zein jatetxetan egiten du lan Aitor Etxebarria sukaldari bergararrak?

- A/ Palacio de Elorriaga.
- B/ Akelarre.
- C/ Txistu.

2.

Nongoa da lehenengo jazz kontzertua egingo duen Myöhä taldea?

- A/ Norvegia.
- B/ Finlandia.
- C/ Suedia.

3.

Zein izan da aurtengo Labegaraietako Txapelketako kopa txapelduna?

- A/ Artusamak.
- B/ Mongatxurak.
- C/ A Ze Flaxa.

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Marivi Peña

EDU MENDIBIL

Simon Arrieta zeramika taldearen sorreratik taldeko kide da Marivi Peña: "Gaztetan margotu egiten nuen, eta, besteak beste, Miguel Okinaren eta Simon Arrieta-aren eskolak jaso nituen. Orain dela 25 bat urte, berriz, zeramika taldea sortu genuen. Donostiako Catalina de Erauso taldekoak etorri ziren guri erakustera, eta ordutik hona burubelarrri nabil zeramikan. Buztina lantzea asko gustatzen zait; hainbat ikastaro egin ditut Eibarren, Gasteizen eta Deban". Zabalotegin daukaten lokalera astean hiru bat aldiz joaten dela eta zeramika bere zaletasun handienetakoa bilakatu dela diosku: "Buztina lantzeko hainbat modu daude. Zeramika tradizionala atsegin dut gehien, eta buztinlariaren tornu elektrikoarekin egiten dut lan. Pitxerrak, platerak, poteak eta lantzen ditut, eta piezei labean hezetasuna kendu ondoren, nik neuk esmalteztatzen ditut piezak, pistolarekin, bainuarekin edo isurketekin".

Egunotan zeramika taldekoen erakusketa ikusgai dago kultura etxean. Mariviren eta haren lagunen lana ikusteko aukera paregabea.

"Zeramika tradizionala eta buztinlariaren tornuarekin piezak lantzea atsegin dut"



E.M.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUAN ITURBErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Juan!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1822an / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kraft maionesa

450 ml.

0,89 €

148 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



CLINICA DENTAL
BERGARA

FINANTZAKETA PERTSONALIZATUA
Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón,
Guía Azul de la salud, Dentired, Fremap eta Aresa.



ELBARRITUENDAKO SARBIDEA

Odontologia helduendako eta umeendako

Hortz-protesiak

Inplanteak

Hortz-estetika

Bidekurutzeta 36 behe. Bergara. 943 76 05 77



BERGARA
Julen Sánchez
Ekainaren 28an, 8 urte.
Urte askotarako!
Olaia eta gurasoak.



BERGARA
Lorea Vicente
Ekainaren 30ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Jokin.



BERGARA
Edith Miota
Ekainaren 27an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ibon Berraondo
Martxoaren 23an, 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Belen Pelicano
Ekainaren 27an, 3 urte.
Zorionak! Gurasoak
eta aitona-amonak



BERGARA
Sara Manzano
Ekainaren 28an, 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aritz.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua



BERGARA
Lierni Azpeitia
Ekainaren 28an, 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Mila Lizarralde
Ekainaren 28an, 45 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak



ANTZUOLA
Aitzol Iturbe
Ekainaren 20an, 13 urte.
Zorionak! Gelakoak;
bereziki neska eta tutorea.



BERGARA
Jone Olabarria
Ekainaren 24an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Sánchez
Ekainaren 28an, 2 urte.
Urte askotarako!
Familia osoa.



BERGARA
Mikel Moñux
Ekainaren 26an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Marta Molina
Ekainaren 30ean, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Iñigo Zubillaga
Ekainaren 28an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maialen Leturia
Uztailaren 2an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Miriam Moñux
Uztailaren 2an, 3 urte.
Urte askotarako! Aitatxo,
amatxo eta Andoni.



BERGARA
Juanita Kalboetxeaga
Ekainaren 25ean, urteak.
Zorionak amama!
Nora, Aritz, Aroa eta Ekhi.



BERGARA
Sara Balentziaga
Ekainaren 28an, urtebete.
Zorionak! Gurasoak eta
aitona-amonak.



EKAINAREN 13KO APATXIKO ERANTZUN ZUZENAK:

1. Zein izan da lasterketaren azken emaitza?
1-Ane 2-Jon 3-Gaizka 4-Maialen 5-Mikel 6-Ainara
2. Ipinizue errenkada bakoitzian zein izan dan
esaldirik egokixena:
1-B 2-A 3-A 4-A 5-B 6-AB 7-B 8-A 9-A 10-B

GURASUEKIN EGITTEKO ARIKETAK:

Azpiko testuan hutsuniak bete hurrengo berbeekin:
bezala-moduan-azkar-poliki-zelako-baiño

Eskolako nere lehenengo eguna zan. *Zelako* urduritasuna! Jente berrixa, ohitura berrixak, dana zan berrixa neretako. Gaztanberiak *baiño* dardara haundixagua neukala, mutiko argal bat etorri zan neregana. Nere izena galdetu zoztan eta ni harrixa *bezala* mutu gelditu nintzan. Segittuan txirriñak jo zeban eta *azkar* juan giñan eskola barrura. Mutiko haura izango zan nire lehenengo laguna? Hori pentsauta, hasiera-ko estuasunak desagertzen hasi ziren. Etxera bueltan, lehenengo egun hartan gertautako dana lasaittasunez gogoratzan, *poliki* juan nintzan. Seme-alabak edukitzen dittuen gurasuen *moduan*, egun hartatik aurrera neretako dana ezberdiña izan zan.

Zorionak Igor eta Garazi!

Haiei egokitu zaizkie 'Apatxi'-ko 6. aleko lehen sariak!

Apatxiko seigarren aleko sariketan
Igor Okinak eta Garazi Plazaolak irabazi dituzte bi sari nagusiak.
Igorrek *Gipuzkoa zure esku* mahai-jokua eta Garazik *Matrakan* mahai-jokua eskuratu dute.

Horrez gain,
Jokin Narbaiza, Ander Najera, Beñat Etxabe, Jon Mikel Aiastiu eta Joseba Carnicero
ikasleek *Ume txikiendako kantu eta jolasak*
liburuxka bana jasoko dute.

APATXI-REN HURRENGO ALEA, OPOR OSTEAN BERRIGARAN!
Beraz, adi egon! Bitartean, ondo pasa!

Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



%96 Meriva

Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeetarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu: Opel Meriva berria da.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 27a / 163. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Kalebarrengo jaien txanda da asteburuan

AINTZANE IRIZAR

Joan ziren San Juanak, eta San Pedro jaien txanda iritsi da. Kalebarrengo auzotarrek oraingo asteburuan ospatuko dituzte jaiak. Horretarako, hainbat ekitaldi eta ospakizun antolatuko dituzte, gaur, egubakoitza, hasi eta domeka iluntzera arte.

Aurten ez da asto lasterketarik egongo, baina egitarau zabala prestatu dute auzotarrek, ohiko sagar dantza eta erromeriak, besteak beste.

Gaur bertan, egubakoitza, erromeria izango dugu gaueko hamarretan, Ansorregi trikitilariekin.

Bihar, zapatua, ekitaldi ugari egongo da goizez eta arratsaldean. Goizean ume eta gaztetxoek txanda izango da: 11:00etan hasiko dira horiendako ekitaldiak. Ordu horretan, marrazki lehiketara egongo da; 12:00etan, berriz, ginkana jokoak egongo dira, Peña Aiastuik antolatuta; 12:30ean, kalejira egongo dute trikitilariekin.

Arratsaldean ere ez dute aspertzeko aitzakiarik izango herriko neska-mutikoek. 18:30ean, jolasparkea egongo da umeendako, gaztelu puzgarriekin eta auto txikiarekin; 19:00etan, berriz, buruhandiak ibiliko dira Kalebarrenen eta inguruko kaleetan.

20:00etan, ohiturari jarraituz, arbola jasoko dute auzoko muti-



Zapatu arratsaldean jasoko dute arbola auzotarrek.

lek; 21:00etan, afaria egongo dute eta horren ondoren Bidusound diskoteka mugikorra etorriko zaigu Zurrategira; 00:00etan, azkenik, sagar dantza egongo da. Domekan, berriz, 11:30ean, meza egongo da; 12:30ean, dantzarien saioa; 17:30ean, herri kirolak; eta jaiak bukatzeko, Zabale eta Larrañaga trikitilariarekin erromeria izango dugu Zurrategin.

SAN MARTZIAL JAIK

Auzoetako jaiarekin bukatzeko, datorren asteburuan, uztailearen 5ean eta 6an, hain zuzen ere, ospatuko dituzte San Martzialak Lizarraga auzoan, nahiz eta San Martzial eguna, berez, maiatzaren 30ean izan.

Ohikoa den moduan, bazkaria egongo dute, eta bazkalostean, erromeria egongo da.

HIRIGINTZA

Maristen eraikina eraisten hasiko dira

Udaleko arduradunek aurreko asteko egubakoitzean adierazi zigitenez, astelehenean haste-koak ziren maristena izandako eraikina botatzen, baina erre-dakzioa ixterako orduan, oraindik hasteke zeuden lan horiekin. Dena dela, Udaleko arduradunek adierazi zigitenaren arabera, astea amaitu baino lehen haste-koak ziren lanekin.

Iberdrolarekin hainbat arazo izan ditu Udalak; izan ere, orain dela urte batzuk Iberdrolak kable batzuk pasatzeko aprobetxatu zuen eraikin hori, eta Udalak kable horiek kentzeko eskatu zionean, horren truke "dirutza handia" eskatu zuen Iberdrolak, Udaleko arduradunen esanetan.

Azkenean, baina, arazo horiek guztiak konpondu zituzten, eta aurreko astean kendu zituen kableak Iberdrola enpresak.

Gauzak horrela, eraikina eraisten hasteko moduan daude dagoeneko.

GIZARTE ETXEA EGITEKO, ERAIKIN BERRIA

Gogoratu behar dugu egoera kas-karrean zegoelako hartu zutela eraikina eraisteko erabakia.

Gizarte etxe berria egitekoak ziren bertan; orain, baina, eraikin hori eraitsi egingo dutenez, berria eraikiko dute leku berean. Hainbat jardueratarako prestatuko dute gizarte etxea: zinema, gaztetxea, erretiratuendako egoitza, taldeendako lokalak...

LABUR

KZGuneak ordutegia aldatuko du uztailean, eta abuztu osoan itxita egongo da

KZGuneak ohiko ordutegia aldatuko du uztailean. Uztaileko lehen-dabiziko astean 13:00etatik 17:00etara egongo da zabalik; bigarren astetik aurrera, berriz, goizez bakarrik zabalduko dute, 08:00etatik 12:00etara, hain zuzen ere. Dena dela, ikastaroekin segituko dute. Abuztuan, berriz, oporrak hartuko dituzte; itxita egongo da hilabete osoan. Gogora ezazue Olanan etxeko lehen solairuan dagoela KZGunea, eta doan dela Interneten nabigatzea.

Udalaren webgunea dagoeneko sarean dago, eta laster aurkeztuko dute

Poliki-poliki aurrera doa Antzuolako Udalaren webgunea, eta laster egongo dute gune horren aurkezpena. Dagoeneko, baina, sarean dago webgune hori, herriaren gaineko hainbat albiste eta informazioarekin. Astero berritzen dute agenda; oraingo astean, esaterako, Kalebarrengo jaietako egitaraua topatuko dugu webgunearen orrialde nagusian. Beste hainbat informazio, hala ere, oraindik sartu gabe dute. Esan bezala, laster egongo dute webgunearen aurkezpen ofiziala, eguna zehazteke dagoen arren.

Elbarriendako aparkalekuak errespetatzea eskatu dute Udaleko arduradunek

Herri osoan hainbat aparkaleku daude gordeta elbarriendako eta mugikortasun arazoak dituztenentzako. Hala ere, behar bezala seinalatuta dauden arren, sarritan ez ditugu errespetatzen, eta elbarri ez diren erabiltzen dituzte. Hori ikusita, Udaleko Gizarte Ongizateko Sailak aparkaleku horiek elbarriendako lagatzea eskatzen die herritar guztiei.

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



**taberna
jatetxea**

Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Jaiak eta beroa, asteburuko protagonistak

AINTZANE IRIZAR

Ondarreko jaiak, San Juanak eta bero sargoria izan genituen aurreko asteburuko protagonistak herrian. Ondarren, esaterako, umeendako jolasak antolatuta zituzten, eta aurrez prestatu bako jolasak ere egin zituzten; izan ere, egin zuen beroarekin, mangera hartu eta bat baino gehiago goitik behera bustita geratu zen.

Domekan, berriz, prozesioa egin zuten elizatik Ondarrera.

Jaietarako antolatutako zozketan, berriz, 923 zenbakia izan zen saritua. Zubietako Aizpea Aizpuruari egokitu zaio saria.

SAN JUANAK UZARRAGAN ETA KALEAN

Domekan, hilak 22, ospatu zuten San Juan jaiak Uzarragan. Meza izan zuten hantxe, eta gero, dantza saioa eta luntxa.

San Juan bezperan, berriz, Herriko Plazan izan ziren ospakizunak; arbola jaso zuten eta dantza saioa egon zen. Gero, San Juan Sua egin zuten Sagastiko zelaietan.

Bestalde, Lore Lehiaketako sariak banatu zituzten. Alde zaharreko etxeei dagokienez, Santiagonekoek jaso zuten lehen saria; alde berriagoko etxeetan, berriz, Josefina Irizarrek eta Santi Aiastuik.



Domeka eguerdian, prozesioaren ondoren, loreak bedeinkatu zituzten Ondarren.



Gustura ibili ziren neska-mutikoak San Juan sua egiteko prestaketetan.



Santiagonekoa, ondoen apaindutako alde zaharreko etxea.



Josefina Irizarri eta Santi Aiastuiri eman zieten Lore Lehiaketako beste saria.



Briska jokoan txapeldunorde

Sabina Agirrek eta Karmen Egañak erretiratuendako Gipuzkoako Briska Txapelketan hartu dute parte, eta txapeldunorde geratu dira. Bestelako karta jokoen txapelketak ere egon dira, baina briska jokoan moldatzen da ondoen bikote hori.

Arrasaten eta Legazpin hainbat partida irabazi ondoren, hilaren 17an jokatu zuten finaleko partida Donostian. Ez zuten irabazi, baina, edozelan ere, bigarren postua eskuratu zuten Karmenek eta Sabinak./A.I.

LABUR

Quebrantahuesos txirrindulari lasterketan 21. sailkatu zen Aitor Larrea antzuolarra

Bere gogortasunagatik da ezaguna Quebrantahuesos zikloturistendako proba, eta zapatuan egin zuen beroarekin, are eta gogorragoa izan zen lasterketa. Hala ere, ondo ibili ziren antzuolarrak: Aitor Larreak 21. postuan bukatu zuen lasterketa; Joseba Garitanok 46. egin zuen; Aitor Peñagarikanok 139. bukatu zuen; Beñat Aiastuik 325., Imanol Garmendiak 3.451. eta Basili Ormazabalek, azkenik, 3.453. Lasterketan 4.516 lagunek hartu zuten parte.

Mairuaren Alardean parte hartzeko deialdia egin diete herritarrei

Gainean ditugu herriko jaiak, eta jaiok antolatzeko lanean dihardu Jai batzordeak. Mairuaren Alardean parte hartzeko deialdia egin die Jai batzordeak hala nahi duten herritarrei. Danborra jotzen, tropan edo bestelako zereginetan parte hartu nahi duten herritarrek udaletxeko bulegora jo dezakete izena emateko, edo honako telefono zenbaki honetara deitu: 943 76 62 46.

Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko ekainaren 27a / 147. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Pagatza industrialdeko laugarren fasea urbanizatzeko baldintzak onartu dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI


Pagatza industrialdeko lehenengo erreka urbanizatzeko proiektua onartuta, Gobernu batzordeak hainbat baldintza plazaratu ditu bertako lanak egingo dituen enpresa aukeratzeko. Hala, interesatuek uztaillaren 19ra arte izango dute eskariak aurkezteko.

Gobernu batzordeak, ekainaren 10ean egindako batzarrean, Pagatza industrialdeko laugarren sektorea (lehenengo erreka) urbanizatzeko Toledo taldeak prestatu duen proiektua onartu zuen. Bide batez, lan horiek egingo dituen enpresa kontratatatzeko baldintzak plazaratu zituen.

Lanak Pagatza industrialdeko bigarren faseari dagozkio. Guztira 80.000 m²-ko azalera egingo dituzte obrak eta 4.552.311,42 euroko (757.440.888 pezeta) kostua izango dute.

BALDINTZAK

Lehiaketa bidez aukeratutako enpresa bat arduratuko da Pagatza industrialdean obrak egiteaz, eta horretarako, Udalak hainbat baldintza zehaztu ditu. Baldintzak



Pagatza industrialdeko lehen fasean hogeit hamar enpresa baino gehiago daude.

betetzen dituzten enpresen artean bat hartzeko, Udaleko hainbat ordezkari osatutako mahai bat egongo da, eta hark izango du azken hitza.

Enpresa bat edo beste aukeratzeko orduan honako puntu hauek hartuko dituzte kontuan: prezioa, obraren azterketa eta lan programa, epeak, langileak,

makineria, eta antzerako lanetan azken urteotan izandako eskarmentua. Lanen kostua baloratuko dute gehien. Enpresaren eskaintza egokia bada eta prezioa

gainerako enpresena baino merkeagoa bada, lehiaketan puntu gehiago lortuko ditu prezio baxuena eskaintzen duenak.

Gobernu batzordeak onartutako baldintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dituzte, eta interesatuek uztaillaren 19ra arte izango dute eskariak aurkezteko.

Horren ondoren, lanak iraillean hasiko direla uste dute Udaleko arduradunek. Behin obrak hasita 20 hilabete izango dituzte Pagatza industrialdeko laugarren sektorea urbanizatzeko.

BALDINTZAK

Gaur egun Elgetak 138.000 m² baino gehiago ditu industria lurzorutan, eta horietatik ia 98.000m² Pagatza industrialdeko lehenengo faseari dagozkio. Bertan 20 enpresa baino gehiago daude. Azken urteotan asko dira euren industria jarduerara Elgetara ekaritzea erabaki duten enpresak, eta gaur egun Elgetan industria sektorean diharduten langileen kopurua 600 lagun ingurukoa da.

Pagatzako proiektu berriarekin, industriagune baten elkartu eta lanpostu berriak sortu nahi dira.

JAIK

Antzerkia eta musika, izango dira jai egitarauko osagai nagusiak

Espaloia aretoan ezagutzera eman zuen Jai batzordeak aurtengo Azoka Nagusiko jaietako programa. Bertaratutakoek xanpainarekin topa egin ondoren, kabaret ikuskizunaz gozatu zuten.

Olaia Jiménez eta Jon Andueza arduratu ziren aurkezpen lanez, eta, besteak beste, Jai batzordearen izenean agurra egiteko aprobetxatu zuten ekitaldia. Izan ere, lau urteko lanaren ostean, batzordeko kideek laga egingo diote antolatze lanari.

PROGRAMA

Egitarau oparoa prestatu du Jai batzordeak aurtengo jaietarako. Eguena *Elgeta tropikala* izendatu dute, eta herritarrei hawaiiar jantzita kalera irteteko eta Txatunga Bembe-ren erritmora dantzari egiteko dei egin diete.

Kale antzerkiari ere garrantzi berezia eman diote aurtengon: Trapu Zaharra konpainiak hiru lan ekarriko ditu Elgetara eta Goloka taldeak, berriz, umeendako obra bat. *Iturrian zer dago?* ikuskizuna ere egongo da.

Musikari dagokionez ere aukera zabala egongo da: Egan, Akelarre eta Gardokiren erromeria doinuak, Migdalia Etxeberriaren soinu kubatarrak eta gaztetxe aldameneko lautadan jardungo duten taldeen musika gaztea.

Bestalde, ohiko ekitaldiak ere egongo dira: pilota partidua, gaztelu puzgarriak, asto lasterketa... Baita azken urteotan jaietako ekitaldi nagusi bihurtu den danberrada ere. Aurten Elgetako Martxa estreinatuko dute.



Programa aurkeztu ostean, xanpainarekin topa egin zuten Espaloira joandakoek.

ELKARRIZKETA

LUPE IBARBIA/HERRI ESKOLAKO IRAKASLEA

“Oraingo ikasle batzuen gurasoen irakasle izandakoa naiz eskolan”

Abaltzisketarra da jaiotzez, baina azken 33 urte hauetan Elgetan bizi da. Orain dela 38 urte hasi zen Herri Eskolan irakasle lanetan, eta aurtun, ikasturtea bukatzeaz bat agur esan dio hezkuntzan egindako jardunari.

Zer dela eta irakasle?

Txikitatik nire ilusioa irakasle izatea zen, eta lortu egin nuen. Garai hartan, gainera, ez zen batere erraza. Ni herri txiki baten bizi nintzen, eta Donostian eta Bilbon egin nituen ikasketak.

Beti Elgetan jardun duzu?

Ikasketak amaitu, eta denboraldi bat Donostian eman nuen. Gero, 1965ean Elgetara etorri, Itxaro eta Maria Pilar irakasleekin Ikastola sortu eta ordutik hona hemen eman ditut eskolak.

Zer eman eta zer kendu dizu Elgetako eskolak?

Umeak asko maite ditut, eta haiekin lan egiteko aukera eskaini dit, baita pertsona bezala aurrera egiteko ere. Kendu, berriz, ezer askorik ez. Agian ez dut beste herri batzuetako hezkuntza esperientziak ezagutzeko aukerarik izan, baina Elgetakoa ez nuke ezergatik aldatuko.

Eskolak berak urte hauetan izan du aldaketarik, ezta?

Batetik, eskolen bateratzea bizi izan dut nik. Bateratze proiektua sortu aurretik gu lan horretan hasiak ginen. Izan ere, Elgetan ume gutxi egonik, irakasleok ez genuen posible ikusten bi eskola aurrera eramatea. Bestalde, eraikuntzetan ere izan da aldaketarik: Maalako eskola zaharretan hasi eta eskola berrira.



Eta ikasleetan sumatu duzu aldaketarik?

Oraingo umeek erraztasun handiagoa dute ikasteko. Hala ere, bai lehen baita orain ere Elgetan beti izan dira ikasle onak.

Elgetako eskola txikia da. Horrek badu abantailarik?

Bai, duda barik. Harreman handia dago ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Gainera, ni hain-

beste urtean Elgetan irakasle izanik, konturatu naiz lehen nire ikasle izandakoak orain nire ikasle gurasoak direla, eta gure artean oso lotura handia dago.

Zuk egindako lana eskertuz omenaldia jaso duzu.

Bai, eta espero ez nuenez harriduraz eta emozioz hartu ere bai. Urte luzez egin dut lan, eta penaz lagako dut eskola.

KIROLA

Gaur, ETB Kantxako finalerdiak frontoian

I.A.

Amateur mailako Lau t'erdiko Pilota Txapelketa amaierara bidean da. Azoka Nagusiko jaietan jokatuko dira finalak, eta bertarako txartela lortzeko, lehian nor baino nor gehiago zortzi pilotarik jardungo dute gaur Udal Pilotalekuan.

Martxoan hasi eta gaur artean abian izan da Lau t'erdiko ETB Kantxa Banakako Pilota Txapelketa. Gaur, hilak 27, jokatuko dira norgehiagoka horretako finalerdiak: kadeteetan, Iraolak eta Goenagak elkarren aurka jardungo dute eta Elurbek eta Apezteak jokatu dute beste partidua; 23 urtez azpikoetan mailan, Mendizabal eta Domínguez izango dira lehen partiduan eta Díaz eta Sorarrain bigarrenen.

19:30ean hasiko dira finalerdiak Elgetako Udal Pilotalekuan, eta finalerako txartelak izango dira jokoan. Partiduak edo horien laburpenak Euskal Telebistan emango dituzte.

FABORITOAK, MENDIZABAL ETA DÍAZ

Orain arte txapelketak izan duen jarraipena ikusita, azken txanpan ere pilotalekura zale asko joango direla uste dute antolatzaileek. Kadeteetan maila nahiko parekoa dute jokalariek, baina Elurberen eta Apeztearenean artean lehia gogorra izango da, biak ere etorkizun handiko pilotariak dira-eta. Mendizabal eta Díaz dira faborito 23 urte azpikoetan.

Bestalde, Areto Futboleko Txapelketako partaideek ere azken fasea jokatzeko dihardute; hortaz, laster jakingo dugu zein den irabazle. Elgetan kirolaz gozatzeko aukerarik ez da faltako.



Iazko finalistak, txapelketa amaitu ostean, Elgetako pilotalekuan.



Dantza soltean bigarren

Argazkiko bikotea zorteko dabil azkenaldian. Iart Bolinaga eta Andoni Elortza dantzari elgetarrak urtetan egindako lanaren ordaina jasotzen ari dira.

Bergarako jaietan jokatuako Euskal Herriko Txapelketan bigarren egin ostean, joan den astelehenenean Donostiako Amara auzoan izandako Dantza Solteko Txapelketan ere bigarren sailkatu ziren. Udan zenbait herritako jaietan dantza solteko sariketetan hartuko dute parte./I.A.

LABUR

Jaietako afarirako txartelak salgai tabernetan

Elgetako jaietako eguenerako herri afaria antolatu dute, eta bertara joan nahi dutenek txartelak herriko tabernetan eskuratu ahal izango dituzte, uztailaren 1a baino lehen, hamar euro ordainduta.

Afaria plazan izango da eta euria eginez gero, berriz, Espaloia aretoan. Prestatuko duten menua: entsalada mistoa eta pasta-entsalada, behi masailak perretxiko saltsarekin eta jogurt krema. Horren guztiorren ondoren, kafea, kopa eta purua.

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Bigarren
jaunartzeko
eguna

Orain dela 46 urte atera zuen argazkia eliza atarian agertzen den taldeak, bigarren jaunartzea egin ostean.

7 urterekin egiten zuten orduan lehen jaunartzea eta hamabirekin bigarrena. Egun hartako meza berezia izaten zen arren, gero ez zuten inolako ospakizunik egiten.

Erretratukoak euren adineko beste hainbat elgetarrekin batera kinto bazkaria izan zuten orain dela gutxi, eta agian jaunartze egunaz ere egingo zuten berba. Hona hemen argazkian agertzen direnak:

Goian (ezkerretik): Mari Carmen Askasibar, Angel Iturricastillo, Patxi Basauri, Migel Mari Elorriaga, Jesus Mari Arantzeta, Julian Barrutia eta Bittori Elkoro.

Behean: Mari Carmen Etxeberria, Ana Mari Zabalondo, Begoña Telleria, Elena Arozena, Mariasun Agirre eta Mari Tere Erostarbe.

Argazkia: Mari Carmen Askasibar



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Pagatza
ingurua

Pagatza Industrialdeko bigarren faseko lanen proiektua onartu duten honetan, garai baten Pagatza ingurua zelakoa zen erakutsi nahi dizuegu.

Batzuek gogoan izango duzue Elorriorako bidea eta haren ezkerrean zegoen zelaia. Izan ere, orain dela gutxi hasi dira bertan lantegiak eraikitzen. Pagatza baserriaren alboan futbol zelaia ere egon zen.



1967

Berdegunea zen nagusi Pagatza baserriaren aurrean. Bestalde, Elorriora doan bidea orain dena baino estuagoa zen garai hartan.



2003

Pagatzan industrialdea eraiki dute eta hogeitaz gora daude. Errepidea ere zabaldu egin dute, bertatik Bizkaira sartzen da-eta.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

San Martzialak 2003



AZPEITXI

Jatetxea

- Oilaskoa
- Paella
- Gisatua
- Entsalada errusiarra
- Patata-tortilla
- Erredondoa saltsan

Arenerreka 13
Tel. 943 76 55 00

ETXAGI

JATETXEA

- Patata-tortilak
- Oilaskoak
- Bertara eramaten dugu!

Masterreka 8
Tel. 943 76 53 12

Mujika

gozotegia



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Bertan egindako natazko eta marrubizko izozkiak

Artekalea 3
Tel. 943 76 10 34



- Oilaskoak
- Entsalada errusiarra
- Patata frijituak
- Bertara eramaten dugu!

Simon Arrieta 2A
Tel. 943 76 71 19



MANO HERMANOS

- Errioxako ardoa eta beste izendapen batzuk
- Sagardoa
- Likoreak
- Garagardoa
- Ura

Amillaga 11
Tel. 943 76 14 48
Faxe 943 76 14 49



- Pastelak
- Pastel txikiak
- Pastak
- Erreilenoak eta tostoiak
- Tartak
- Tarta bereziak

Artekalea 9
Tel. 943 76 11 83
Bidekurutzeta 20
Tel. 76 12 19

ATXEGA ARDOAK S.L.

- Mahaiko ardoa:
Lopez Ojeda
- Errioxakoak: Señorío de Ojeda eta Tinto Covila
- Nafarroakoa: Castillo de Ojeda
- Ondua: Marques del Puerto
- Rueda Ferrosol
- Txakolina: Santarba
- Sagardoa: Bere-Aran

Amillaga 25
Tel. 943 76 27 76 / 38 52

Gora San Martzialak!

GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

